

# Kontzeju

Oñaticako Udaltzainakaria | 2016ko Urtia | 265. zenbakia

www.oñati.eus



Herriko Busak



@herrikoBusak




herrikoBusak



herrikoBusak

DEGIK



## HERRIGUNEKO AUTOBUS ZERBITZU PUBLIKOA

Urriaren 14an jarriko da martxan Ugarkalde eta Kasablanka artean

# HERRIBUSA

Urriaren 14an jarriko da abian herriguneko autobus zerbitzua. Bi ibilbide zirkular egingo ditu Ugarkalde eta Kasablanka artean, txandaka, orduerdiro

Herriguneko autobus zerbitzu publikoa, Herribusa, jarriko du abian udalak urriaren 14an. Hiru hilabeteko proba pilotua izango da, urtarilaren 14ra arte, herritarren aldetik duen harre-  
ra, erabilera maila eta era hone-  
tako zerbitzu baten bideraga-  
rritasuna aztertzeko.

Bi linea edo ibilbide izango ditu Herribusak. Ibilbide zir-  
kularrak izango dira (ikus-  
i ondoko planoak) Ugarkalde eta  
Kasablanka artean. Autobus  
batek emango du zerbitzua bi  
ibilbideak txandakaturaz, 30  
minutuko maiztasunarekin;  
ordu puntuetan 'A' ibilbidea  
egingo du, eta ordu eta erdietan  
'B' ibilbidea. Hemezortzi gelto-  
ki izango ditu zerbitzuak ibil-  
bidean zehar.

Astegunetan (astelehenetik  
ostiralera) egun osoan zehar  
(07:30-21:00) ibiliko da auto-  
busa, eta zapatuetan goizez  
(09:00-14:00). Igande eta jai  
egunetan ez da zerbitzurik  
egongo.

Bidaia bakoitzak euro bat  
balioko du eskudirutan ordain-  
duz gero, baina 10 bidaietarako  
bonoa erosteko aukera egongo  
da 5 eurotan, autobusean bertan.

Leintz Garraioak enpresak  
emango du zerbitzua. Bera izan  
da eskaintza ekonomiko one-  
na egin duen enpresa. Hiru  
hilabeteko zerbitzua 27.000  
eurotan esleitu dio udalak. Txar-  
tel salmentaren bidez batutako  
dirua enpresarentzat izango da.

Herribus zerbitzua eskaini-  
ko duen autobusak 22 plaza  
izango ditu, eta mugikortasun  
urriko pertsonen sarbidea erraz-  
teko arrapala izango du.

**herribusa**

**A Linea**

- Ugarkalde
- San Lázaro
- Kaleak - Eskalera
- Kalea Zuzen
- Erekiak
- Tasakua
- Karmon
- Kirioak
- Kurbak
- Kasablanka (Tasakua)
- Kurbak
- Kurtzio
- Karmon
- Arbitutegia
- Artea
- Suberriola
- Auzilariak
- Elizaga
- Ala Urdinola
- Dakoa
- Ugarkalde

**B Linea**

- Ugarkalde
- San Lázaro
- Kaleak
- Elizaga
- Elizaga
- Arbitutegia
- Kurbak
- Kasablanka (Tasakua)
- Kurbak
- Kurtzio
- Karmon
- Arbitutegia
- Artea
- Suberriola
- Auzilariak
- Elizaga
- Ala Urdinola
- Dakoa
- Ugarkalde

**ORDUTEGIA**

- Lanegunak (astelehena-ostirala): 7:30-21:00
- Larunbatak: 9:00-14:00

**MAIZTASUNA**

Autobusa 30 minuturo irtengo da Ugarkaldetik. Ordu erdietan 'A' ibilbidea egingo du, eta ordu puntuetan 'B' ibilbidea.

**PREZIOA**

- Eskudirutan ibilgailuan: 1 €
- Bonoa (10 bidaia): 5 €

(autobusean eskatu beharko da)

**Astelehena ostirala - De lunes a viernes**

Ugarkalde	Erekiak	Kasablanka	Arbitutegia
7:30	7:58	8:45	9:52
8:30	8:58	9:45	10:52
9:30	9:58	10:45	11:52
10:30	10:58	11:45	12:52
11:30	11:58	12:45	13:52
12:30	12:58	13:45	14:52
13:30	13:58	14:45	15:52
14:30	14:58	15:45	16:52
15:30	15:58	16:45	17:52
16:30	16:58	17:45	18:52
17:30	17:58	18:45	19:52
18:30	18:58	19:45	20:52
19:30	19:58	20:45	21:52
20:30	20:58	21:45	22:52

**Larunbatak - Sábado**

Ugarkalde	Erekiak	Kasablanka	Arbitutegia
9:00	9:18	9:45	10:12
10:00	10:18	10:45	11:12
11:00	11:18	11:45	12:12
12:00	12:18	12:45	13:12
13:00	13:18	13:45	14:12

**Astelehena ostirala - De lunes a viernes**

Ugarkalde	Arbitutegia	Kasablanka	Erekiak
8:00	8:08	8:15	8:22
9:00	9:08	9:15	9:22
10:00	10:08	10:15	10:22
11:00	11:08	11:15	11:22
12:00	12:08	12:15	12:22
13:00	13:08	13:15	13:22
14:00	14:08	14:15	14:22
15:00	15:08	15:15	15:22
16:00	16:08	16:15	16:22
17:00	17:08	17:15	17:22
18:00	18:08	18:15	18:22
19:00	19:08	19:15	19:22
20:00	20:08	20:15	20:22

**Larunbatak - Sábado**

Ugarkalde	Arbitutegia	Kasablanka	Erekiak
9:00	9:08	9:15	9:22
10:00	10:08	10:15	10:22
11:00	11:08	11:15	11:22
12:00	12:08	12:15	12:22
13:00	13:08	13:15	13:22

# TXAKETUAKO BIDEGURUTZEA OINEZKOENTZAT

Zamalan orduetan bakarrik (8:00-12:00) zabalduko da zirkulaziora. Hiru hileko proba pilotua egingo da, urritik urtarrilerarte.

Oinezkoendako gune lasaiak eta atseginak irabazteko asmoz, Txaketuako bidegurutzea peatonalizatzea erabaki du udalak. "Puntu garrantzitsua da hau, oinezkoen bi gune zeharkatzen dituelako. Horregatik, Atzeko Kaleko lanak amaitu eta erdi-gunean errotazioko aparkaleku sistema berria martxan jarri bezain pronto, Txaketuako bidegurutzea oinezkotu egingo dugu, zamalanetarako ordutegiarekin" azaldu du udaleko Hirigintza batzordeko buru Irati Etzeberriak.



Hiru hilabeteko proba pilotua egingo da, eta Txaketuako bidegurutzea zamaketa ordutegian (8:00-12:00) bakarrik zabalduko da ibilgailuentzat. Gainerako orduetan itxita egongo da Unibertsitate etorbidea, Aita Madina kaleko bidegurutzetik (*La Caixa*) Maiatzaren 1<sup>a</sup> Plazaraino (*Aker* taberna).

## Mugikortasun iraunkorra helburu

2014an onartu zuen udalak Oñatiko **Hiri-Mugikortasun Iraunkorrerako Plana**, herritarrekin batera egindako parte-hartze prozesu baten ondoren. Helburu bezala, 2020. urtera begira, honakoak jasotzen zituen planak: garraio pribatuaren erabilera **%60tik %40ra** jeistea, garraio publikoaren erabilera **%3tik %7ra** igotzea, eta oinez edo bizikletaz egiten diren desplazamenduak **%37tik %53ra** igotzea. Eta horretarako hainbat ekintza proposatzen ziren arlo ezberdinetan (oinezkoen mugimendua, garraio publikoa, mugikortasuna bizikletaz, aparkalekuak...).

Eta, hain zuzen, plan horren baitan kokatu behar dira udalak martxan jarritako eta jarriko dituen hainbat neurri: Olabarrietako bidegorria, Estola Bidea proiektua, plazako arkupetako zoladura eta oinezkoen bideak egokitzea, Atzeko Kale oinezkotzea, auzo-taxia, Herribusa...

## IBILGAILUEK BAIMEN-TXARTELA BEHARKO DUTE PEATONALIZATUTAKO KALEETARA SARTZEKO

Atzeko Kaleko beheko aldea oinezkotzeko lanak amaitu ondoren, kale hau zamaketa-ordutegian bakarrik zabalduko da ibilgailuentzat. Pibote bat jarriko da Ramon Irizar kalean, eta goizeko 8:00etatik 12:00etara bakarrik zabalduko da, Kale Barria eta Kale Zaharra bezala.

Baina, adi, izan ere, aldaketa garrantzitsu bat egongo baita oinezkotutako kaleen (Atzeko Kale, Kale Barria eta Kale Zaharra) funtzionamenduan: aurrerantzean zamaketa lanetan diharduten ibilgailuek eta bertako bizilagunek bakarrik izango dute baimena kale horietan sartzeko. Horretarako baimen-txartela eskuratu beharko dute udaletxean, eta ibilgailuko aginte-mahaian jarri beharko dute, leku agirian.



M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Mozorrón Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikortasun: 620 77 66 20

## HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERFORATZAK, LANTZAK, LAMU FURDIOZTAK, ANBARRAK, PINTURU LANTZAK...



DISKONKORTATZE ETZA MUGIKORTASUNERAKO

HERRITARREKIN BATERA EGINDAKO PARTE-HARTZE PROZESU BATEAN

2014AN ONARTU ZUEN UDALAK OÑATIKO

695 78 91 04 - 943 04 47 77

# ERROTazio APARKALEKUAK

## Hil honetan jarriko dira martxan txandakako aparkalekuak herri erdigunean

Herriko erdiguneko komertzio eta zerbitzuetara errezago iritsi ahal izateko, eta oinezkoekiko elkarbizitza bermatzeko asmoz, errotazioko edo txandakako aparkaleku sistema jarriko da martxan hil honetan bertan, Atzeko Kaleko lanak amaitu eta guneak prestatu (parkimetroak instalatu eta guneak margotu) bezain pronto. Dohainik aparkatu ahal izango da gune hauetan,

baina denbora muga batekin: 60 minutu, gehienez (merkataritza ordutegian). Bestalde, erdiguneko kaleetako bizilaguneei zuzendutako aparkalekuak ere bereiztuko ditu udalak. Gune hauetan denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute kale horietako bizilagunek, baina Guneako Biztanlearen Txartela eskatu beharko dute udaletxean, eta dagokion tasa ordaindu.

## TXANDAKAKO APARKALEKUAK

### GUNEAk

- **Aita Madina** kalea (18 aparkaleku + 2 elbarrituenak)
- **ONCE**ren kabina ondoan (8 aparkaleku)
- **Portu** Kanean (17 aparkaleku +1 elbarrituena)
- **Alhondiga**: 6 aparkaleku
- **Ramon Irizar** kalean (7 aparkaleku + 1 elbarrituena)
- **Zubibarri** kalean (15 aparkaleku)
- **Motxon** kalea (26 aparkaleku + 1 elbarrituena)

### FUNTZIONAMENDUA

- **Ordutegia**: astelehenetik ostiralera: 8:30-13:15 / 16:00-20:30. Larunbatak: 8:30-13:15
- **Denbora muga**: Gune hauetan gehienez 60 minutuz aparkatu ahal izango da. Ezingo da bueltatu gune berera hurrengo bi orduetan (baina bai beste gune batean aparkatu).
- Merkataritza ordutegitik kanpora (20:30-8:30) eta jai egunetan denbora muga barik aparkatu ahal izango da.
- **Dohainik**. Gune hauetan aparkatzea dohainik izango da, baina tiketa atera beharko da parkimetroan, eta leku agirian jarri autoan.
- **Parkimetroak**. Irudikoa bezalako makinak jarriko dira herriko gune ezberdinetan (Aita Madina, Maiatzaren 1a plaza, Portu, Zubibarri eta Ultzegin kaleetan) txartelak ateratzeko

## BERTAKOEN APARKALEKUAK

### GUNEAk

- '**A**' - Aita Mortara (26 aparkaleku)
- '**B**' - Zulueta dentista aurrean ( 7 aparkaleku)
- '**C**' - Bidebarrieta (Zurrust parean): 9 aparkaleku
- '**D**' - Bidebarrieta (Errementari plaza aurrean): 15 aparkaleku
- '**E**' - Bidebarrieta 28 parean: 13 aparkaleku

### FUNTZIONAMENDUA

- **Nork aparkatu**: '**A**' eta '**B**' guneetan Kale Zaharra (1-29 eta 2-48), San Anton, Aita Madina, Foruen plaza, Unibertsitate etorbidea, Maiatzaren 1ª eta Portu kaleko bizilagunek aparkatu ahal izango dute, Guneako Biztanlearen Txartela eskatuta udaletxean.
- '**C**', '**D**' eta '**E**' guneak Bidebarrieta, Zubibarri, Motxon, Atzeko Kale, Kale Barria eta Errementari plazako bizilagunentzat gordeko dira.
- **Guneako biztanlearen txartela**: Aipatutako kaleetan erregistratutako ibilgailuen jabeek eskatu ahal izango dute. Jabea ere bertan erroldatuta egon beharko da. Ibilgailuek ezingo dute 9 plazan kopurua gainditu.



## KONTUZI, ESKOLAKO BIDEA

Neska-mutikoak eskolara oinez, patinetez edo bizikletaz joatea sustatzen duen Eskolako Bidea ekimenaren baitan, argazkikoa bezalako seinaleak jarri ditu udalak herriko hainbat gunetan, haur eta gazteek eskolara joateko erabiltzen dituzten bideetan. Auto-gidariak ohartaraztea da seinale hauen helburua, gune horietan kontu berezia izan dezaten eskatzeko, umeak dabiltzalako.



## ETORKIZUNeko PROIEKTUAK

Bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzen jarraitzeko, **San Lorentzoko** bidegorria (Ugarkalde eta Lazarraga artean) egokituko du Udalak. Proiektua idazten ari da, eta urtarrilean hasiko dira lanak. Ildo horretan, urte amaierarako onartuko du udalak bizikletaren erabileraren gaineko **ordenantza**, oinezkoen eta bizikleta erabiltzaileen arteko elkarbizitza paketsua sustatzeko asmoz.

Datorren urtera begira, **Olaiturrin** lurpeko aparkalekua eraikitzeko aukerak aztertuko dituela aurreratu du udal gobernu taldeak.

Bestalde, **auto elektriko**en bidez pertsonen mugikortasun eko-sozialeko proiektu bat sustatzeko asmoa agertu du udalak; mugikortasun urria duten pertsonen garraiorako zerbitzua izango litzateke.

## DEIALDIA

### Kiroldegia berritzeko proiektuen inguruko saio irekia

**URRIAK 22, LARUNBATA, GAZTELEKUAN, 11:00**

Iraileko zenbakian aurreratu bezala, kiroldegia berritzearen inguruko hausnarketa herritarrekin partekatu nahi du Udalak. Horretarako, urriaren 22an saio irekia egingo da. Chocarro&Herranz arkitekto taldeak orain arte egindako azterketaren azalpenak emango ditu bertan, eta ostean, bertaratutakoek gaiarekiko lehen inpresioak gaintzekoekin elkarbanatzeko aukera irekiko da. Udalak asmo du herriko elkarrekin ordezkarri edo interesa duen edozein herritarrekin talde motor edo eragile bat sortzeko, partaidetza prozesua diseinatu eta gauzatzen lagunduko duena. Saio honen bukaeran gonbidapena luzatuko da talde motorreko parte izateko izena emateko. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

**PREZIO ONENAK**

**San Martin**  
*Lehenengo fasea prest!*

**italde**  
Ramón Irizar Kalea, 2  
T 943 78 27 07  
www.italde.com

**IÑAKI GABILONDO** / ULMA Taldeko zuzendari orokorra

# “Krisi honek erakutsi digu lehiakorrak izateari uzten badiogu, ez gaituela babestuko ez gure elkarte izaerak, ez tamainak, ezta orain arteko ibilbideak ere”

ULMAK 55 URTE BETETZEN DITUEN HONETAN IÑAKI GABILONDO ZUZENDARI OROKORRAREKIN HITZ EGIN DUGU, KRISIAK UTZITAKO ONDORIOEZ ETA ETORKIZUNEN ERRONKEZ

Zortzi urte igaro dira krisi ekonomikoa mundu mailan lehertu zenetik. Nola ikusten duzu egoera egun? Gainditu al dugu krisia?

Ez nuke esango krisia gainditu dugunik, eta uste dut luze joko duela oraindik. Estatuko eta nazioarte mailako egoera oso zaila da, munduko ekonomiaren inguruan ziurgabetasun eta zalantza handiak daudelako. Hor ezer gutxi egin dezakegu.

Krisia ulertu behar dugu, negozioak kudeatzeko baldintzetan eman den aldaketa sakon bat bezala. Eta alde horretatik krisia izugarria izan da. Aldaketa horiek oso azkar eta oso sakon ematen ari dira, eta horrek exijitzen digu berehalako erantzunak ematea eta malgutasun edo flexibilitate handiz jokatzeko. Eta hori bai dago gure esku.

Krisiaren harira, kooperatiba eredua auzitan jarri duenik ere bada. Nola erantzun du ULMAk talde bezala?

Eredu kooperatiboa zalantzan jartzea, 60 urtetik gorako ibilbidean hainbat krisi gainditu ondoren, eta garai zailetan ere oso emaitza onak lortzen ari diren negozio asko dituenen, barregarria iruditzen zait. Krisi honek erakutsi du, lehiakorrak edo konpetitiboak izateari uzten badiogu, ez gaituela babestuko ez gure elkarte izaerak, ez tamainak, ez eta iragan urteetan lortutakoak ere.

Hori esan ondoren, argi esan behar da eredu kooperatiboak erakutsi duela bere indarra krisiari aurre egiteko, eta ULMAren esperientzia horren adibidea da.

**UIMA Taldearen baitan neurri gogorak hartu behar izan dituzue krisiari aurre egiteko. Nola moldatu zarete?**

Lau gako edo oinarri aipatuko nituzke: 1. *Diagnostiko azkarra*. Krisia antzeman orduko hasi ginen neurriak hartzen, begira egon barik. 2. *Konpromisoa*. Kooperatiba guztiek hartu



## **DIAGNOSTIKO AZKARRA, KONPROMISOA, ESKUZABALTASUNA ETA KOOPERATIBISTA GUZTIEN INPLIKAZIOA IZAN DIRA KRISIARI AURRE EGITEKO GAKOAK**



dituzte beharrezkoak ikusten zituzten neurriak, kanpoko laguntzen zain egon barik. 3. *Eskuzabaltasuna*. Hobeto zeuden kooperatibek okerren zeudenei lagundu diete. 4. *Pertsonen inplikazioa*. Taldeko pertsona guztiek erantzukizunez jokatu dute.

Oinarri horietatik abiatuta, bi arlo nagusitan egin dugu lan: 1. Krisiaren inpakto negatiboari aurre egiteko neurri aringarriak hartu eta hainbat ajuste edo doikuntza egin ditugu. Hauek azpimarratuko nituzke: ● Soldatetan egindako ajusteei esker 47 milioi euro aurreztu ditugu. ● Interesen sortzapen eta kapitalizazioari uko eginez 29 milioi aurreztu ditugu. ● Lehiakorrak ez ziren aktibi-



## 55 urte aberastasuna sortuz

Aurten 55 urte betetzen ditu ULMAk, nazioartera begira, baina bere esentzia eta baloreak galdu barik, Iñaki Gabilondo Taldeko zuzendari orokorrak adierazi digun moduan. “Ulma mundu mailan lehiatzen da eta, beraz, bere posizioa mantendu edo hobetu nahi badu, globalizatuta egon behar du. Zenbat eta internazionalagoa izan Ulma, orduan eta gehiago haziko dira Oñatiko negozioak, eta aukera gehiago kooperatibetako lanpostuak defendatzeko, eta lan aukera berriak sortzeko hurrengo belaunaldiei begira. Hori da Oñatiri, eta gure kooperatibak hartzen dituzten herriei egin diezaiekegun ekarpen handiena, baina ez bakarria. Ulma Taldea Oñatin sortu zen eta hasieratik bere bazkideak, maila indibidualan, eta baita kooperatibak eta Taldea bera ere, inplikaturik egon dira bertako gizartean, kulturean eta ekonomian. Ulma Fundazioaren web orrian ikus daitezke arlo sozio-kulturean egiten ditugun aktibitateei buruzko informazioa”.

Eta bide horretan sakontzeko itxaropena eta konpromisoa azaldu digu Gabilondok. “Zenbat eta lehiakorragoak eta errentagarriagoak izan, orduan eta baliabide gehiago bideratu ahal izango ditugu Fundaziora. Gure bokazioa da, uztaileko Kooperatiben Biltzarrean jasota geratu zen moduan, ahalik eta ahalegin handiena egitea gure inguruko gizartea eraldatzen joateko”.

### SALMENTATAN KRISIA HASI AURREKO KOPURU BERETSUETARA ITZULI GARA, ETA OÑATI MAILAN GAUR EGUN ENPLEGU GEHIAGO DUGU, KRISIA HASI ZENEAN BAINO

tateak itxi eta leku-aldaketak egin ditugu lan-taldean, 1.050 langileri eragin diotenak. Gaur egun, 14 pertsona bakarrik ditugu behin betiko soluzio baten zain, nahiz eta, oraingoz, Taldeko negozioetan jarraitzen duten lanean.

2. Negozioen lehiakortasunerako neurriak: ●Bi koopera-



tiba berri eratu ditugu garai honetan. ●Produktu eta merkatu berrietan inbertitzen jarraitu dugu. ●Gure ustez garapen handiena izango duten merkatuen aldeko apustua egin dugu, eta zenbait enpresa erosi ditugu. Azkena, Ulma Eraikuntzak Estatu Batuetan erosi dutena. ●Ekoizpen prozesuetan inbertitzen jarraitu dugu. Azkena, Ulma Packaging-en *Termosellado* negozioa garatzeko Goribar auzoan eraikitzen ari garen lantegi berria, datorren urtean zehar martxan egongo dena.

Puntu honetan azpimarratzekoa da ULMA Taldeko koo-

peratibek elkarri eskaintzen dioten babes finantzieroa. Politika hau giltzarria izan da historikoki ULMA Taldearen eta bere negozioen garapenerako.

#### Zein da krisi honetatik atera beharreko ikasgai nagusia?

Lehiakorrak izan behar dugu negozio bezala, eta hori lortzen da denon ekarpenarekin, beti bezeroa edukita erreferentzia bezala.

Gauzak beti egongo dira etengabeko aldaketan, baina hori ez da izan behar kezka edo preokupazioa, okupazioa baizik. Erakutsi dugu gai garela egoera

(Jarraitzen du)

**MAPFRE**  
Oñati

Paritu kalea, 5  
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65  
Faxa: 943 78 07 65

**ARRI**  
Orain Oñatiarren zehar

Industria Hornidurak  
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18  
suministrosarri@hotmail.com

**ULMAK AZKEN URTEOTAN BURUTU DITUEN PROIEKTU NAGUSIETAKO BATZUK**



**ULMA AGRICOLA**  
Negutegi adimentsuak

- 10 hektarea negutegi Guatemalan (Del Monte)
- *Sunset Peppers*-en (Panamá) negutegia
- Mexikoko Agrícola Serratorrentzat negutegia



**ULMA ARCHITECTURAL**  
sistema aurrefabrikatuak

- Brasiliako aireportuan drainatze kanalak
- *Arese*-ko (Italia) merkatal gunean drainatze soluzioak
- Brasilgo Irudi eta Soinuaren museoko Fatxada Aireztatua



**ULMA ORGA**  
JASOTZAILEAK

- Europa mailako T-REX berrikuntza proiektuan parte hartu dugu
- *SAT Online* kudeatzaile informatikoa garatu dugu



**ULMA CONSTRUCTION**  
enkofratuak / aldamiokak

- Lima-ko (Perú) tren elektrikoa
- *Inchma Dorrea*-ren (Perú) eraikuntza
- Rio de Janeiroko (Brasil) Estalada zubia

zailei aurre egiteko, baldin eta ez bagara lokartzen.

**Krisi garaiak aukera garaiak direla ere esan ohi da. Nola aterako da ULMA Taldea krisi honetatik?**

Krisi garaitik indartuta atera behar da; bestela hurrengo kolpean erori egingo zara. Hasieratik ari da ULMA Taldea erabakiak hartzen maila guztietan, zailtasunei aurre egiteko eta, aldi berean, ahal bada, merkaturuan hobeto poszionatzeko. Gaur egun negozio guztiak ari dira eboluzio positiboa izaten merkatu-posizionamenduari dagokionez, eta hobetzen jarraitzea espero dugu.

**Zein dira erronka nagusiak etorkizunera begira?**

Azken urteotan nazioarteko merkatuen aldeko apustua

indartu dugu, estatu mailan galdutako aktibitate eta salmenta mailak berreskuratzeko helburuarekin; 2007an 377 milioi euro fakturatu genituen espainiar merkatuan, eta 2014an ez ginen 150 milioira iritsi. Zorionez, 2015ean itzuli gara berriz ere krisia hasi aurreko zerbaki paretsuetara.

Enplegu mailan gutxigatik ez gara iritsi krisia hasi aurreko kopuruetara, Espainiako delegazioetan egin behar izan ditugun doikuntzak inportanteak izan direlako. Hala ere, Oñati mailan gaur egun enplegu gehiago dugu, krisia hasi zenean baino.

Maila finantzieroa Taldea orekatzeko ere ahalegin handia egiten ari gara. Krisi aurreko urteetan inbertsio handiak egin genituen industria ekipamenduetan eta nazioarteko filialen

**LANTEGI BERRIA ERAIKITZEN ARI GARA GORIBAREN, PACKAGING NEGOZIOAREN TERMOZIGILATZE JARDUERA BULTZATZEKO**



garapenean. Oparoaldian egingadako inbertsio haiek giltzarri izan dira egoerari aurre egiteko, baina bere momentuan zorpetze handia eragin zuten. Gaur egun erdira jeitsi dugu zorra, eta egoera finantziero onean gaude etorkizuneko erronkei erantzun ahal izateko.

Gaur egun ditugun erronka nagusiak haiek dira: errentagarritasun maila hobetzea arlo guztietan; maila partikularrean ditugun desorekak gutxitzen jarraitzea; potentzial handia erakutsi duten negozioak finkatzea; Taldeko negozio ezberdinetan

PSICOLOGIA ZENTROA  
ROSA RUEDA  
Zubiaga Auzoa, 29  
943 04 74 06  
psicologia-rueda@cop.es  
www.psicologiarosarueda.com

ANSIETATEA  
ESTRESA  
TIBURUMIALGIA  
DEPRESIOA...

Amara igartua  
ARKITEKTURA ESTUDIOA

Zaharberritzaak - Inuskaritza Teknikoak (ITE) - Ziurtagiri energetikoak (CEE)  
- Oñati laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak - Barne dekorazioa-tardura libretzak  
tel: 577 31 20 57 • email: amaliigartua@gmail.com • Oñati





### ULMA CONVEYOR COMPONENTS Arrabolak, Girlandak, Euskarriak eta Danborrak

- *Gangavaran*-eko (India) portuaren handitze lanak
- *Semen Indonesia* porlan taldea handitzeko arrabola eta euskarrien hornikuntza



### ULMA HANDLING SYSTEMS Ingenieritza logistikoa integrala

- *Rio de Janeiro*-ko (Brasil) aireportuko ekipaia-sistema
- *San Petesburgo*-ko (Errusia) merkatala guneko karrusela
- *Eroski-rentzako* (Elorrio) eskarien automatizazioa



### ULMA PACKAGING Enbasatzeko ekipamenduak eta sistemak

- *Toyonaka*-n (Japon) hegazti produktuentzako enbasadora
- *Campofrío*-ren (Espainia) pizzendako hozte planta



### ULMA PIPING Bridak eta Fittingak

- *Pertsiar Golko*-ko (Arabia Saudita) gas hodiak itsas zabalean
- *Talara*-ko (Perú) birfindegiaren modernizazioa

garatzen ari diren proiektu berriak babestea.

Oñatin, zehazki, bi proiektu berri abian jartzeko inbertsioak egiten ari zarete, ezta?

ULMAk dituen negozioen tipologia ikusita, inbertitzen jarraitu behar dugu, lehiakorrak izaten jarraitu nahi badugu. Produkzio planta eta erabakigune nagusiak Oñatin ditugu eta, beraz, inbertsio gehienak ere bertan egiten ditugu.

Une honetan proiektu inportanteak ditugu esku artean: alde batetik, *ULMA Packaging* Goribar auzoan eraikitzen ari den *Termosellado* lantegi berria, eta, bestetik, *ULMA Piping* garatzen ari den proiektu berria Fagor Leniz-i duela bi urte erositako instalazioetan.

Ekipoetan eta azpiegiturretan egiten ari garen inbertsioak

inportanteak dira, baina ez da atzean geratzen negozio guztiak pertsonengan egiten ari diren inbertsioa, bereziki *Packaging*, *Handling Systems*, eta *Construction* negozioetan, eta *Embedded Solutions* eta *Inoxtruck* promozioetan.

**Bi negozio edo jarduera berri (Embedded Solutions eta Inoxtruck) garatzen ari zarete. Zertan dira?**

Negozio berriak sustatzea oso oso zaila da, eta are gehiago garai hauetan. Zazpi urte daromatxate lanean gogor, merkatubaldintza oso zailetan, konpetentzia basati batekin, eta dirubaliabide estuekin. Aurreikuspenak betetzen ari dira, eta, poliki poliki kontsolidatuz doaz. Uste dut meritu handia dutela, eta hori da prestakuntza maila handiko jendea dugulako,

## ULMA PIPING-en PROIEKTU BERRIA GARATZEN ARI GARA, DUELA BI URTE FAGOR LENIZI EROSITAKO INSTALAZIOETAN



sinistu egiten duena egiten ari den horretan, eta inplikazio maila altua duena.

**Nazioartean bizi den egoera sozio-ekonomiko-politikoa kontuan hartuz, zerk kezkatzen zaitu bereziki?**

Munduan gertatzen denak asko kezkatzen gaitu, modu batera edo bestera eragiten digulako, baina horren aurrean ezer gutxi egin dezakegu. Guk lana egin behar dugu aldaketa horiei aurrea hartu ahal izateko eta, ahal dela, etekina ateratzeko, arriskuen aurrean babesteko eta, batez ere, bezeroekiko gure posizioa hobetzeko. ■

**Dei**  
photography

[www.deianeunamuno.com](http://www.deianeunamuno.com)

Telef. 666 20 54 62

Email: [deiufotografia@gmail.com](mailto:deiufotografia@gmail.com)

Estudio: 20560 Oñati Gipuzkoa





Elkarzabal elkarteko langile eta kolaboratzaileetako batzuk

# Zaintza zerbitzua eskaintzen du Elkarzabal elkarteak

» Zerbitzua kontratatzeko **632 693 314** zenbakira deitu behar da

Orain dela bi urte eratu zen Elkarzabal elkarteak, etorkinen eta egoera sozio-ekonomiko larrian dauden pertsonen laguntzeko helburuarekin. Pertsona horiei lana aurkitzen laguntzea da Elkarzabalen helburuetako bat, eta bide horretan urrats berria eman du, zaintza edo etxekeko laguntza zerbitzua eskaintzen hasi baita, oraintsu arte Bidebarrik (Udalak eta Caritasek sortutako enpresa) eskaini izan duen zerbitzua bere gain hartuz.

Ekainean hasi zen Elkarzabal zaintza zerbitzua ematen, eta orain arteko balorazioa oso positiboa da. Elkarteko hogeiki kide enplegatu ditu, eta ilusio handia dute, zerbitzu ona eman eta, poliki poliki, herritarren konfiantza bereganatzeko.



**BILERAK EGITEN DITUGU FAMILIEKIN ETA LANGILEKIN, ZERBITZUA BEHAR BEZALA EMATEN DELA BERMATZEKO**



“Aukera oso ona da guretzat” esan digu Elkarzabal elkarteko sustatzailea den Jesus Mari Aranburuk; “inbertsiorik eta dirurik gabe funtzionatzen duen enpresa bat da, eta lanpostu ugari sortzeko aukera ematen digu”.

Izan ere, gizarte zahartuz doan neurrian, gero eta familia gehiagok behar dute kanpoko laguntza etxekeko nagusiak zain-

tzeko eta, beraz, lan aukerarik ez zaie faltako, zerbitzu ona ematen badute, behintzat.

**KALITATEZKO ZERBITZUA HELBURU**

Zerbitzu ona ematea da, hain zuzen, Elkarzabal elkarteko kideen ardura nagusietako bat, eta ahalegin berezia egiten ari dira, gertuko jarraipena eginez, Aranburuk azaldu digun moduan; “bilerak egiten ditugu familiek eta langileekin, zerbitzu ona ematen dugula bermatzeko, eta sor litezkeen arazoak edo gaizki-ulertuak bideratzeko. Akats txikiren bat egin dugu, hasiberriak garela-ko, baina, oro har, herritarrak gustora daude ematen ari garen zerbitzuarekin”.

Kontratu aukera ezberdinak eskaintzen ditu Elkarzabalek,

kontratatzaileak dituen beharren arabera: orduka, gabaz, asteburuetan, interno bezala...

### LAN BALDINTZA DUINAK

Zerbitzuaren kalitatea ez ezik, langileen lan baldintzak ere zaindu nahi ditu Elkarzabal elkarteak. Hala, Etxeko Langileen konbenioa hartzen dute erreferentzia bezala kontratuak egiterakoan, dagozkien opor egunekin eta bestelako eskubi-deekin. "Oporraldiak edo bajak gertatzen direnean, geu arduratzen gara ordezkapenak egiteaz" azaldu digu Aranburuk.

Telefono zenbaki bat dauka Elkarzabalek, zaintza zerbitzua koordinatzeko: 632 693 314. Zenbaki honetara deitu behar du zerbitzua kontratatu nahi duenak, edo zaintza zerbitzuan lan egiteko prest dagoen jendeak ere bai. "Ondo legoke, bere kabuz zaintza lanetan ari den jendea ere Elkarzabal elkartera hurbiltzea, konpetentzia desleialak ekidin, eta lan baldintza duinak lortzeko denon artean" adierazi du Aranburuk.

### ETORKIZUNeko KEZKAK

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen lege berriaren arabera, 2017ko urte amaierarako zaintza arloko titulazioa exijituko da arlo honetan egiten diren kontratu guztietan, eta Elkarzabaleko kideen iritziz, arazo handia izan daiteke. "Gure elkartean dagoen jende askok formazio maila apala dauka, eta ezinezkoa da 2017ko abendurako titulazioa lortzea; ikasteko denbora askorik ez dutelako eta, bestalde, behar beste ikastaro ere ez dagoelako. Pertsona hauek oso egokiak dira



**Elkarzabal elkarteko  
20 kide ari dira  
gaur egun pertsona  
nagusien zaintza  
lanetan Oñatin**

## JENDE ASKOK ERREZELOAK DITU ORAINDIK ETORKINAK KONTRATATZEKO, BATEZ ERE GIZONEZKOAK EDO MUSULMANAK BADIRA, ETA USTE DUGU TABU HORIEK GAINDITZEKO ORDUA DELA



zaintza lanetan aritzeko, baina zaila da titulazio hori lortzea. Beraz, legea bere horretan mantentzen bada, kaos bat izango dela uste dugu, zerbitzu honen premia handia dagoelako gaur egun etxe askotan".

Ildo horretan, udalari ere eskatzen diote, zaintza titulua eskuratu ahal izateko ikastaro gehiago, eta aukera gehiago eskaini ditzan.

Elkarzabal elkarteare ere ari da bere aldetik formazio saioak antolatzen bere kideentzat: sukaldaritza, adineko pertsonak

nola mugitu, higieenea...

### ETORKINEKIKO TABUAK GAINDITU

Beste kezka bat ere badute Elkarzabal elkarteko kideek, eta zera da: jende askok oraindik errezeleok ditu etorkinak kontratatzeke; batez ere gizonek badira, eta gehiago musulmanak badira. "Beloak beldurra ematen du oraindik. Argi esan behar da" dio Aranburuk. "Egia da diferentzia handiak ditugula kulturalki, baina uste dugu tabu horiek gainditu egin behar ditugula. Kasu bat baino gehiago ezagutzen dugu, etorkinak ikusi ere egin nahi ez zutenak, baina gero oso gustora egon direnak zerbitzuarekin. Integrazioa nahi badugu, denok jarri behar dugu gure aldetik, bai etorkinek, eta baita geuk ere".

**GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak

**GAK**  
Garbitze eta konponketen enpresa

**653 70 45 47**  
Oñati

**PINTURAS  
URBIA  
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

# Liztor beltza ugarituz doa

Dagoeneko 50 habia  
kendu dituzte Oñatin;  
iazkoak halako bi  
garai honetan



Asiako liztor bat bertako erlea erasotzeko prest (Arg.: Danel Solabarrieta)

Orain dela sei urte iritsi zen liztor beltza edo Asiako liztorra (*Vespa Velutina*) Euskal Herrira, eta etengabe zabalduz eta ugarituz doa. Oñatin bertan, aurten, dagoeneko 50 habia suntsitu dituzte udal zerbitzuek, iaz garai honetan kendutakoak halako bi.

Asiako liztorrak hemengo erleak jaten ditu eta kalte handia egiten ari da. Horregatik, liztor beltzaren habiak ikusiz gero, lehenbailehen kentzea komeni da.

## LIZTOR BELTZAREN AURKAKO PROTOKOLOA

Oñatiko udalak duela hiru urte jarri zuen abian liztor beltzaren aurkako protokoloa. Habiaren bat antzematen denean, udaltzaingoak lehen txostena egiten du eta, ondoren, habia suntsitzeko operazioa programatzen da. Larrialdi egoera bat bada (leku publikoan dagoelako) su-hiltzaileei deitzen zaie, eta ahalik eta azkarren kentzen



dute.

Bestela, astean behin programatzen dituzte habiak kentzeko lanak. Bi pertsona aritzen dira zeregin horretan: udal brigadako burua (biozidak aplika-



Udal brigadako langilea liztor beltzaren habi bat suntsitzen.

**HABIAREN BAT  
IKUSIZ GERO  
UDALTZANGORA  
DEITU BEHAR DA  
LEHENBAILEHEN**

tu ahal izateko formazioa daukana) eta udalak orduka kontratatzen duen teknikaria.

Liztorren habia iristeko moduko tokian baldin badago, bertaraino igo eta aerosol bidez

**OÑATI GARBIKETAK S.L.**

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala  
- Lurren kristalizatua, dekapatua  
eta argizari ematea.

Oñati 17. beheko eskalera | Tel: 732 733 712  
argitagarbi@hotmail.com

**ARGITAGARBI**

**Almaraz**  
Inmobiliar gestioa

Tel: 679411444  
www.almaraz.info

**Carmelo Pérez de Almaraz**

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".



## ESPEZIE INBADITZAILEA

Asiako liztorra 2004an antzeman zuten aurrenekoz Frantzia. Antza, kiwi kargamendu batean iritsi zen Bordelera, eta poliki poliki Europa osora zabaltzen ari da, ugalkortasun handia baitu. Pirinioak zeharkatuta, Irun inguruan antzeman zituzten aurreneko liztor beltzak 2010ean, eta sei urte ondoren, Euskal Herri osora zabalduta dago.

Hemengo erlea baino hiru aldiz handiagoa da, eta oso gogorra. Erreginak hibernatu egiten du negu osoan eguer edo haitz bitarteren batean, eta udaberriarekin esnatu egiten da eta arraultzak jartzen hasi. Iraila-urria bitartean hartzen du tamainarik handiena habiak (40-80 zentimetro) eta bakoitzak 2.000 edo 3.000 liztor izan ditzake. Garai honetan liztorrek elikagai behar handia dute, eta orduan egiten dute kalterik handiena, bertako erleak jaten dituztelako, hauen proteinak bereganatzeko.

sartzen dute pozoia barruan. Bestela, habia oso goian baldin badago, pertika luze bat erabiltzen dute intsektizida habian sartzeko; 15 metrotik gorako altueran baldin badago, suhiltzaileen esku uzten dute, segurtasunagatik.

Normalean gabaz egiten dituzte habiak kentzeko lanak, orduantxe egoten baita liztor gehien kabi barruan. Eta habia kentzeko moduan baldin badago, kendu eta erre egiten da, barruan larbak egoten direlako.

# 'IBAI LAGUN' eta 'ZERO ZABOR' ASTEA

URRIAK 16-23

Errekak garbi mantentzearen garrantziaz herritarrak sentsibilizatzeko asmoz, **EIBAI LAGUN** jardunaldiak antolatu dituzte Natur Eskolak eta udaleko Ingurumen sailak elkarlanean, laugarren urtez jarraian. Aurten, gainera, uztailean antolatu ohi den **'ZERO ZABOR'** astea atzeratu egin zenez, aste berean biak batera antolatzea erabaki dute Oñatiko Zero Zabor tadearekin batera. Hona hemen egitaraua.

### > URRIAK 16, IGANDEA

**Erreka garbiketa eta landare inbaditzaileak kentzea.** Goizeko 9etan herriko plazan.

### > URRIAK 18, ASTEARTEA

**'Resurrección'** pelikula kultur etxean, arratsaldeko 8etan. Sarrera doan.

### > URRIAK 19, ASTEAZKENA

Hitzaldia. **'Errauskailuaren ondorio larriak osasunean'**. GuraSOS eta sendagileen eskutik. Kultur etxean, 19:00

### > URRIAK 21, OSTIRALA

Antzerkia. **'Konpos Eroak'**. Haurrentzako antzerkia Zirika Zirkusen eskutik. Gaztelekuan, 18:30etan.

### > URRIAK 22, LARUNBATA

Mmendi irteera: **'Ura eta Energia'**. Goizeko 8:30etan herriko plazan. Aurrez izena eman behar da Natur Eskolan (943716404).

### > URRIAK 23, IGANDEA

Luzarrako **zabortegiaren garbiketa**. Goizeko 10etan herriko plazan. Ondoren bazkaria Araotzeko auzo-etxean



Urtero bezala, herriko plazan jarriko dituzte ikusgai errekatik ateratako hondakinak



laz Luzarrako (Araotz) zabortegia garbitzen aritu zen taldea



## Lur Gorri

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

**Pentsuak • Lan tresnak • Haziak • Landareak • Lan erropak  
eta beste hainbat gauza...**

 [lurgorridenda@gmail.com](mailto:lurgorridenda@gmail.com)
 943 905 740 - 663 384 052



# BiziPoz

## zahartze aktiboa sustatzeko programa

► BiziPoz programaren bigarren edizioa jarriko da martxan azaroan, 55 urtetik gorako gizon-emakume guztiei zuzenduta.

► Urriaren 18an egingo da programaren aurkezpena kultur etxean, 18:00etan.



Bizpoz-en lehen edizioan 14 oñatiarrek parte hartu zuten, eta oso aberasgarria izan zela adierazi dute.



Kontzeju | 14 | petic

Eider Etxebarria eta Beatriz Santamaria, BiziPoz-eko arduradunak

Zahartze aktiboa sustatzen duen programa da Bizipoz eta 55 urtetik gorako herritar guztiei dago zuzendua.

Bi hilabeteko iraupena duen formazio programa bat da, eta bi atal nagusi ditu: tailerrak eta proiektua.

Alde batetik formaziorako tailerrak egiten dira; astean bat (guztira zortzi). Landu nahi den gaian aditua den pertsona batek gidatzen ditu tailerrak, eta oso dinamikoak izaten dira, teoria eta

praktika uztartuz betiere.

Eta paraleloki, partehartzaileek proiektu bat garatzen dute, lau edo bost pertsonako taldeetan banatuta, tutore baten laguntzarekin. Tailerretan jasotako formazioarekin gizarte-onurako proiektu bat garatzea da helburua; herrian dagoen arazo edo gabezia bati irtenbidea ematen saiatzea.

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko LEINN graduako (Lidergoa eta Ekintzailetasuna) ikasle diren

**Osasuna, gizarte zerbitzuak eta adimen emozionala dira aurten jorratuko ditugun gaiak**

**NI moda**

**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40

**CORTABARRIA**  
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Hazlendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@telefonos.es

Eider Etxebarria eta Beatriz Santamariak koordinatzen dute Bizipoz programa, Oñatiko udalaren eta *La Caixa*-ren Gziarte-Ekintzaren babesarekin. Joan zen udaberrian egin zen *Bizipoz* programaren lehen edizioa Oñatin, eta orduko esperientzia positiboa ikusita, edizio berri bat abian jartzea erabaki dute.

“Programa aberasgarria da” adierazi digute antolotzaileek; “gauza berriak ikasteaz gain, pertsona ezberdinak ezagutu eta, talde-lanean parte hartuz, elkarri eragin eta norberaren gaitasun pertsonalak garatzeko aukera ematen du, herriarentzako onuragarria den proiektu bat lantzen duzun bitartean”. Horregatik, animatu egin nahi dituzte 55 urtetik gorako gizon-emakumeak Bizipoz programan parte hartzera.

#### ADIMEN EMOZIONALA

Bizipoz programaren edizio berri honetan bi gai nagusi landuko dituzte: alde batetik, osasuna eta gizarte zerbitzuak (bizitza osasuntsua, adinekoak zaintzen dituzten pertsonen osasuna...); eta bestetik, adimen emozionala (emozioen gestioa). “Oso gai interesgarria da” azaldu digute antolotzaileek; “emozioek (tristura, haserrea, poza...) eguneroko bizitzan nola

eragiten duten ikusi, eta emozio horiek kontrolatzen ikasiko dugu. Beste herri batean landu dugu adimen emozionalen gaia, eta oso aberasgarria izan da”.

Gai hauetan adituak diren psikologo eta medikuen azalpenak jasoko dituzte tailerretan, baina, esan bezala, saio dinamikoak eta praktikoak izango dira, teoriara mugatu barik.

#### AURKEZPEN EKITALDIA

Azaroaren 8an jarriko da abian *Bizipoz* programa berria, eta urtarrilaren 17an amaituko da, Gabonetako etenaren ostean. Tailerrak asteartetan izango dira, 17:00etatik 19:00etara, Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18).

Edozein modutan, *Bizipoz* programaren inguruko argibide gehiago nahi izanez gero, urriaren 18an egingo dute herritar guztiei zuzendutako saio irekia kultur etxean, 18:00etan. Izena ere bertan eman ahal izango da, edo, bestela, udaleko Gizarte Zerbitzuen departamentuan (Bidebarrieta 12 / 943037700) urriaren 31rarte.

Programa dohainik da. Parte hartzeileek ez dute ordaindu behar, Udalak eta *La Caixa*-ren Gizarte Ekintzak finantziatzen baitute. Plaza mugatuak dira; 20 lagun, gehienez.

HITZALDIA / Urriak 25, kultur etxean, 19:00

## Oñatiko gastronomiaz

‘Peregrino’ pastelaz, eta XIX. mendean oso ospetsua izan zen Oñatiko Bizkotxoaz hitz egingo du, besetak beste, Lauran Buscak

Artixa Kultur Elkarteak antolatuta, ‘*Centenario Busca Isasi. Apuntes sobre la gastronomía vasca y oñatiarra*’ izenburua duen hitzaldia emango du Luran Buscak urriaren 25ean. Euskal gastronomiaren aitzindaria izan zen Jose Maria Busca Isusi (Zumarraga, 1916-1986) ospetsuaren semea da Luran.

Aurte bete dira, hain justu, ehun urte Busca Isusi jaio zela, eta haren bizitzaren erreposoa egingo du Luran semeak. Jendeak egoki eta osasuntsu jatea izaten zen Busca Isusiren kezka nagusia, eta bere liburuak eta irratsaioak etxe guztietara iristen ziren.

Aitaren lana gogoratzeaz gain, Oñatiko gastronomiaren inguruko hainbat datu jakingarri emango ditu Lauranek. Adibidez, Oñatin hain ezaguna izan zen ‘Peregrino’ pastelaren erretzetaren jatorria azalduko du, eta XIX. mendean ospe handia izan zuen Oñatiko Bizkotxoari buruzko azalpenak ere emango ditu. Bizkotxo horren errezeta ere aurkitu du Lauranek XIX. mendeko liburu batean.



Frantziskotarrek Oñatiko gastronomian izan zuten eraginaz, Oñatiko garai bateko sagardogintzaz, bere aitak jasota daukan errezeta berezi bati buruz (Ezkailuak Usakoko Errotako erara) eta beste hainbat kontu bitxiri buruz hitz egingo du Lauranek.

**fontanería y calefacción**

# BELOKI

- > Iturgintzako material salmenta
- > Komun eta sukaldeetako erreformak
- > Azulejoen salmenta
- > Kalefazioa eta aire girotua
- > Diseinua, dekorazioa eta opariak
- > Obren koordinazioa

Erakusketa berria

Herriguneko osatuena

3. adinekoentzako atal berria.  
Aldatu bainuontzi zaharra,  
dutra-plater eroso batengatik

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI

www.belokionline.com

# Arantzazuko harrobia handitzearen aurka agertu da Udala

Urte batzuetako ixiltasunaren ondoren Arantzazuko harrobiaren gaia mahai gainean dago berriz ere. Berau ustiatzen duen enpresak harrobia handitzeko (Kortakogain aldera 95.000m<sup>2</sup>) eskaera egin zuen bere garaian, eta lizentziaren tramitazioarekin jarraitzen du. Eusko Jaurlaritzak orain harrobi berriaren ustiapen proiektua eta ingurumen inpaktuari buruzko txostenak jarri ditu informazio publikoan.

Horren aurrean, udal gobernu taldeak hainbat alegazio aurkeztu ditu, harrobiaren handitzearen aurka. Jaurlaritzaren txostena orokorkerietan oinarritzen dela dio Udalak, jarduerak eta eremuak eskatzen duen azterketa zientifikoan oinarritu ordez. Mozio bat ere onartu du udalbatzak (EH Bilduren aldeko botoz, EAJ abstenitu egin da), Eusko Jaurlaritzari eskatuz bertan behera uzteko harrobia handitzeko proiektua, ingurumenean, paisaian eta natur baliabideetan sortuko lituzkeen kalte larriak kontuan izanik. Udalak gogorarazten du eremu hori Natura-2000 sarean dagoela, eta hainbat babes neurrik eragiten diotela.

EAJk adierazi du tamaina horretako handitzearen aurka dagoela, eta bat egiten duela gobernu taldeak aurkeztutako mozioekin, baina ez duela uste mozio bidez jorratzeko gaia denik, zuzeneko gestioak eginda baizik.

## Gazteen emantzipaziorako laguntzak urriaren 17rarte

Etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzeko udalak gazteei ematen dien dirulaguntza eskatzeko epea urriaren 17an amaituko da. Gutxienez 12 hilabeteko alokairu kontratua duten 18 eta 30 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta deialdia. Eskatzailearen urteko diru sarrera gordinak ezingo du 28.000 euroren muga gainditu. Alokatzeko den etxebizitza Oñatin egon behar da, eta eskatzaileak ere Oñatin erroldatuta egon behar du, gutxienez hamar urtetan, edo azken bi urtetan jarraian.

## EH Bildu izan da bozkatuena Legebiltzarrerako bozetan

EH Bildu izan zen alderdi bozkatuena Oñatin irailaren 25eko Legebiltzarrerako hauteskundeetan 2.554 botorekin (2012an baino 456 gutxiago. Bigarren indarra EAJ izan zen 2.349 bozkarekin (2012an baino 114 gutxiago). Hirugarren alderdia Elkarrekin-Podemos izan zen 553 botorekin, eta gero PSE (208), PP (138) eta Ciudadanos (27). Partehartzea %66,6koa izan zen, 2012an baino 6 puntu txikiagoa. Horrenbestez, datozen egunetan eratuko den legebiltzarrean oñatiar bat izango da, Larraitz Ugarte, EH Bildukoa.

## Ur txorroten proiektua egin gabe jarraitzen duela salatu du EAJk

Uda sasoia pasa da eta oñatiarrek ezin izan dute ur-txorrotez gozatu, salatu du EAJren udal taldeak. "2016ko aurrekontuetan onartuta dagoen proiektua da, eta ez dugu ulertzen zergatik ez den martxan jarri". San Martinen running zirkuitoa egokitzeko proiektua ere gelditu dagoela kritikatu du EAJk, 2016ko aurrekontuetan jasota badago ere.

## 'Geoizkorri' Malagan aurkeztu dute

Arrikrutz-Oñatiko Kobak, Zerain (burniaren mendia) eta Gatzaga (gatz museoa) biltzen dituen Geoizkorri proiektua Malagan aurkeztu dute ACTE-Koben Elkartearen Kongresuan.

Aizkorri-Aratz mendikatearen ondare geologikoa balioan jartzeko helburua du Geoizkorrik.

## Kultura ondarea ezagutzeko jardunaldiak

Europako Kontseiluak sustatuta, Migrazioei eta Kultura Ondareari buruzko jardunaldiak burutzen ari dira iraila eta urria zehar. Gipuzkoako foru aldundiak ere bat egin du ekimenarekin, eta 53 ekintza antolatu ditu 22 udalerritan. Horieta hiru Oñatin izango dira:

**URRIAK 15 (10:00)**  
**'Historiaurreko migratzaileak'**. bisita gidatua Arrikrutzeko koban.

**URRIAK 23 (11:00)**  
**'Oñati eta Amerika: migratzaileak eta indianoak'**. Bisita gidatua Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan, eta, ondoren, XIX. mendean Oñatitik Ameriketara joandako herritarren bizipenak, eta herrian dauden indianoen etxeen inguruko azalpenak. Eman izena turismo bulegoan: 943783453 edo turismo@onati.eus.



**ANE MERTZERIA**

- Jostako zarak
- Lantzoria
- Umsoen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



## KM'17-ko lekukoari ongi etorria emateko bizikleta martxa egingo da urriaren 15ean

Bergaran ospatu berri den Kilometroak jaia igaro ondoren, 2017ko irailaren 24an Oñatin ospatuko den festarako atzera-kontakteta hasi da, jada. Hogeita bederatzirteren ondoren, Txantxiku ikastolak antolatuko du Kilometroak jaia datorren urtean. Ekintzaz betetako urtea izango da, eta hasiera emateko, lekukoa ekarriko dute Bergaratik Oñatira urriaren 15ean, San Prudentziotik abiatuta egingo den bizikleta martxaren bidez. Herritar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.



## 'Astral' filma-dokumentala ikusgai Oñatin

Hotz-Oñati taldearen eskutik 'Astral' (Jordi Evole) filma dokumentala ikusteko aukera izango dugu urriaren 14an, kultur etxean, 19:00etan. Luxuzko ontzi izatetik, zaintza eta salbamenduko ontzi lanetan aritzera pasa zen belaontziaren istorioa kotatzen du. Libiako kostaldean bere lehen erreskate-misioa egiten ari zela grabatu zuten dokumental hau, Jordi Evoleren 'Salvados'-eko talde bat bertan zela



## Elkartasun trekina Nepalen da jada



Irailaren 23an abiatu zen 'Nepal Lagunduz' taldeak eta Mendiak eta Herriak mendi-giari elkarteak antolatutako elkartasun trekina. Everest inguruko bailaretan ibiltzeaz gain, iazko lurrikaretan kaltetutako herriak, eta Oñatiko diruarekin berritutako etxeak eta familiak ezagutzeko aukera izango dute. Gainera, 300 kilo material (haurrentzako erropak batez ere) ere eramán dute.

### 1.612 MOTXILA HAUR ERREFUXIATUENTZAT

Aurreikuspen guztiak gaindituta, 1.162 motxila batu ditu Hotz-Oñati taldeak Greziako kanpalekuetan dauden haur errefuxiatuentzat. Oñatitik ez ezik, Mundaka, Eibar, Astigarraga, Azkoitia eta beste herri batzuetatik ere jaso dituzte motxilak. Hotz-Oñatik eskerrak emten die lagundu duten guztiei, eta irailaren 8ko pintxopote solidarioan parte hartu zuten guztiei.

## SAN MARTIN GUNEAN

Eraikitzen hasita!

Informazioa: 689 420 761

egaratur

Construcciones | Eraikuntza Lanak

## UDALEKO BATZORDEAK



# Ogasuna batzordea

Mikel Biain (EH Bildu), Lourdes Idoiaga (EAJ), Paskual Elustondo (kontuhartzailea) eta Rafael Kortabarria (EH Bildu) batzordeko burua

**H**erriko jaiak atzean utzita, urteko sasoirik beroena hasten da udaleko Ogasuna (*Hazienda*) batzordeko kideentzat. Urte amaiera bitartean datorren urteko Zerga Ordenantzak eta 2017ko Udal Aurrekontuak onartu behar dituzte. Rafael Kortabarria batzordeko buruak eman dizkigu azalpenak.

**Astero biltzen da Ogasuna Batzordea. Zein da bere egiteko nagusia?**

Asteroko lana, gehien bat, udalak ordaindu behar dituen fakturak onartzea izaten da. Normalean, dagokien batzordean onartuta

egoten dira, baina Ogasuna eman behar du azken oniritzia.

Horrez gain, gure egiteko nagusia da Ordenantza Fiskalak eta Udal Aurrekontuak onartzea, eta kontrolatzea. Azken batean, udalaren alderdi ekonomikoa eta finantzieroa kontrolatzen ditu Ogasuna Batzordeak.

Ildo horretan, batzordeko teknikariak (izaera nazionalako kontuhartzailea), udalak alderdi ekonomikotik egiten duen mugimendu oro legezkoa dela egiaztatzen du, eta ikusten badu erabakiren bat legez kontrakoa dela, bere obligazioa da erreparatu txostena egitea.

**Ia 20 milioiko aurrekontua dauka Udalak. Zaila al da**

### DATUA

**1.565.399 euroko aurrekontua du (osoaren %7,87) Ogasuna sailak**

**hori kudeatzea?**

Ardura handia da tamaina horretako aurrekontu bat kudeatzea, baina ez da zaila. Bizpahiru printzipio eduki behar dira beti oso kontuan; alde batetik, gastu arrunt estrukturalari sarrera arrunt estrukturalarekin aurre egitea, eta, bestetik, gastuak eta inbertsioak kontrolatzea, zorrak oso gora egin ez dezan.

**Krisi garaian gobernatzea egokitu zaizue. Nola eragin dio udalaren ekonomiari, eta zela moldatu zarete aurre egiteko?**

Oso nabaria izan da krisiaren eragina. Foru Fondoa ia ez da igo urte hauetan, eta krisi

aurretik udalak Hirigintza arloan izaten zituen ez-ohiko diru sarrerak ere desagertu ziren.

Urte gogorak bizi izan ditugu, eta egia da, azken urteotan neke ekonomikoa igarten dela, kontuhartzaileak sarri gogorarazten digun moduan, baina, hala eta guztiz ere, udalaren ekonomia ondo dagoela esan daiteke; sarrera arruntak gastu arrunten gainetik daude, eta hori adierazle positiboa da. Zorionez, Oñatiko egoera sozio-ekonomikoa (%7 inguruko langabezia tasarekin) nahiko ona da (salbuespenak salbuespen), eta zerga-bilketari loturiko diru-sarrerak ondo mantentzen dira.

Udaletxe mailan zuhurtziaz jokatzeko saiatu gara krisiaren urte zailetan. Inbertsio maila urte batetik besterako likidazio positiboaren arabera ahalmenera mugatu dugu, mailegurik eskatu gabe, eta gaur

## UDALAREN ZORPETZE MAILA

**Urtea 1,3 milioiko zor biziarekin itxiko dugu, historikoki ezagutzen den zorpetze maila baxuena**



RAFAEL KORTABARRIA | Ogasuna batzordeko burua

## “ Nahikoa luxuzkoa iruditzen zaigu etxebizitza bat hutsik edukitzea, eta gure ustez horrek beste tasa bat eduki behar du. Politika fiskalean progresibitatea aplikatzeko modu bat da

egun egoera ekonomiko one-na duten Gipuzkoako udalen artean gaude, berriki prentsan agertu den moduan.

Ustekaberik ez bada, 1,3 milioiko zorrarekin itxiko duzue urtea. Historikoki ezagutzen den mailarik bajeanean, alegia.

Bai. Datu inportantea da, baina, hala ere, azpimarratu egin nahi nuke gure helburua ez dela zorpetze mailan txapeldunak izatea. Hori oso ondo dago, seinale ona da, baina momentu jakin batean udalak inbertsio potente bati aurre egitea erabakitzen badu

(kiroldegiko berritzea, adibidez) kanpo-finantziazioa eskatzera joko genuke, inongo arazo barik.

Hil honen bukaeran onartuko dituzue datorren urteko Zerga Ordenantzak. Azken hiru uteetan bezala, izoztuta utziko al dituzue?

Oraindik ez dakigu. Gure helburua ez da zergak igotzea, baina zerbitzuen indartzearen ondorioz sarreraren atala egokitu beharra balego, ordenantza fiskalean aldaketak proposatzeko aukera beti dago mahai gainean.

Progresibitatea da EH Bilduren irizpide nagusia politika fiskalean. Zertan edo nola aplikatu duzue?

Progresibitatea eta birbanaketa dira irizpide nagusiak. Hau da, gehien daukanak gehiago ordaintzea, eta gero banaketa justua edo bidezkoa egitea.

Kontua da, progresibitatea errentari eta ondareari lotutako kontzeptua dela, eta horiek Foru Aldundiaren eskumenekoak direla. Beraz, udalaren esku dauden zergetan ez dago aukera handirik progresibitatea aplikatzeko.

Hala ere, filosofia horri erantzuten dio, adibidez, inor erroldatu gabe dauden etxeei (salbuespenak albuespen) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (OHZ/IBI) aplikatzen zaien %100eko errekaragoa. Nahikoa luxuzkoa iruditzen zaigu etxebizitza bat hutsik edukitzea, eta uste dugu horrek beste tasa bat eduki behar duela. Eta hori ere bada progresibitate neurri bat, hau

da politika fiskala egiteko modu bat.

Edozein modutan, argi utzi behar da, etxebizitza hutsen kausistika oso zabala dela, eta 15 albuespen egoera daudela jasota ordenantzaz.

Hortik bildutako diruaren zati bat gazteen emantzipaziorako dirulaguntzetara bideratzen duzue.

Bai, eta hori da birbanaketaren adibide bat. Hau da, neurri aktibo bat jarri dugu martxan, zailtasunak dituzten gazteei etxebizitza bat alokatzen laguntzeko. Iaz 60 mila euro jaso genituen OHZ/IBI zergaren errekaragutik, eta 20 mila bideratu genituen emantzipaziorako dirulaguntzetara.

Bestalde, egoera ekonomiko zailean dauden familientzat doakotasuna planteatzen dugu udalak eskaintzen dituen oinarritzko zerbitzuetan (euskaltegia, ludoteka, kiroldegia...).



LOURDES IDOIAGA / EAJko ordezkaria Ogasuna batzordean

## “ Gure kudeaketa eredia desberdina da. Horregatik bozkatu genuen aurrekontuen aurka.

**Gobernu taldearen kudeaketa eredia zalantzan jarri duzue, eta 2016ko aurrekontuen aurka bozkatu zenuten. Zergatik?**

Bai, EAJk kontra bozkatu zuen, batez ere, urte bakar baterako 4,6 milioi eurotako inbertsioak aurrekustekak udal kontuak exijitzen duten prudentzia eta egonkortasun printzipioak arriskuan jartzen zituelako.

Gainera, inbertsio guzti horiei aurre egiteko: 1) ez zegoen beste kanpoko inolako diru-laguntza berezirik landuta ez Foru Aldundikorik ez Jaurilaritzakorik eta 2) aurrez pilatutako erre-serba guztiak gastatuta zeuden (Ondare Fondona, EAJk 2011 bukaeran utzitako 2 milioi eta

Ur-Jauzietakoa). Beraz dena udal kontuen kontra joan behar zen.

Kudeaketa eredia desberdina izan dugu eta inbertsioak planifikatzerakoan, aipatutako bi baliabideak oinarri-oinarritzat jotzen genituen bideragarritasuna ziurtatzeko.

Argi esan genuen aurrekontuak ez zirela bideragarriak. Udal Kontu-hartzaileak ere berdin diktaminatu zuen esanez ez zituztela betetzen jasagarritasun eta oreka-irizpideak. Hala ere BILDUK onartu zituen.

EAJk arrazoia zuela argi gelditu zen, apirilean, Udal Gobernuak aurrez onartuta zituen aurrekontuetatik milioi bat euroko inbertsioak kentzera

behartua izan zenean.

**Udal zergak izoztu izana ere ez duzue begi onez ikusi.**

Gu ez gaude zergak, besterik gabe, igotzearen alde eta inola ere ez dugu nahi herritarrak zerga bidez zigortzea. Baina jakin behar da udal zerga eta tasak, aurrekontuen diru sarre-arruntan ia erdia suposatzen dutela, beraz funtsezko diru iturriak dira kalitatezko ongizate zerbitzu publikoak finantzatu nahi baditugu. Horregatik, betik prudentzia eta zorrotasunez kudeatu behar dira inongo politika populistarrik gabe. Zergak jaitsi, izoztu edo igotzearen aldekoak izan gara, beti neurri batean eta beharren arabera.

Kontra bozkatu dugu, batez

ere, zabor tasak ez direlako azken hiru urteetan aldatu nahiz eta atez-atekoa ezarri zenetik gastuak asko igo diren. Horren ondorioz, hiru urtetan 500.000 eurotik gorako defizita eragin du. Zerga politika honek ere aurrekontuen bideragarritasuna arriskuan jartzen du eta ez da eredugarria.

**Besterik gehitu nahi duzue?**

Bai. Udal kontuen gestioaren inguruan kontra agertu izan gara, guk beste gestio eredia bat dugulako. Baina bereziki azpimarratu nahi dugu urtean zehar batzordez batzorde egiten dugun lana: inizatibak proposatuz, beste ordenantza eta proiektuen inguruko lanketa eta ekarpenak... Gure ardura eta erantzukizuna da EAJri botoa eman zioten 2.500 herritarren eta laguntza eske hurbiltzen zaizkigun hainbat herritarren ordezkari izatea.



**ARGITARATZAILEA:** Oñatiko Udala  
**ZUZENDARIA:** Iñigo Arregi  
**PUBLIZITATEA:** Aratz Losada  
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
 Aratz Losada

**KOLABORATZAILEAK:** Jerardo Elortza  
 eta Udal Euskaltegia  
**INPRIMATEGIA:** Gertu  
**Tirada:** 5.500 ale  
**Lege gordailua:** SS-357/91

**Posta-e:** kontzejupetik@onati.eus  
**Publizitatea:** publi@onati.eus  
 Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
 20560 Oñati (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## GUTUNAK

Azaleko argazkia: Kontzejupetik

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefona bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

## Arantzazuko kanteria

*Oñatiko Naturzaliak (Jon Ugarte, Idoia Bollar, Joxe Ruiz, Haizea Agirre, etab.)*

Berriro ere agertu zaigu aspaldiko mamua: Arantzazuko harrobia handitzeko asmoa dago. Gaia ahaztuta zegoela uste genuen, azken urteetan harrobiaren martxa moteldu baita, baina batzuk ez daude lo.

Oraindik ezin izan dugu proiektua ikusi, baina harrobia Kortakogain (Atxuri) aldera zabaldu nahi dute, egungo azalera bikoiztuz eta Aloña-ziarra mendiari zati eder bat janez. Aloña-ziarra herri mendia da, hau da, Oñatiarren mendia. Harrobia berriz, proiektu pribatua.

Harrobiak beharrezkoak dira, baina noski kokalekuak ongi aukeratu behar dira. Eta ez dirudi Arantzazu ingurua horretarako tokirik aproposena denik. Harrobiak hainbat lanpostu mantentzen ditu, baina ingurumenean hainbat kalte eragiten ditu: eragin paisajistiko nabarmena, zarata, hautsa,... eta bere zabalkundeak babestutako habitateetan eta faunarengan eragingo luke.

Arantzazuko auzotarrak orain dela urte gutxi argi eta garbi agertu ziren harrobiaren aurka. Oraingoan ere ez badugu ahotsa altxatzen harrobia handituko dute.

## PANPAKO-LEZKA, LANDARE INBADITZAILEA

*Oñatiko Naturzaliak (Anton Txintxurreta, Izaskun Urizabel, Iker Novoa, etab.)*

Egun hauetan panpako-lezka (*Cortaderia selloana*) loretan dago bete betean. Hego Amerikan du jatorria, baina gurean landare inbaditzaile kontsideratzen da. Honek esan nahi du gure ekosistemetan oreka ekologikoa suntsitzen duela.

Laster haizeak barreiatuko ditu bere haziak, landare hau inguruetara hedatuz. Beraz, orain da momentua landare osoa (edo gutxienez loreak) kentzeko. Oraindik gure bailaran ez dago oso hedatua, baina neurririk hartzen ez bada azkar zabalduko da, Asturias, Kantabria edo Bizkaiko errepide bazterretan hedatu den bezala.

Errepideak, trenbideak, industrialdeak... eraikitzerakoan egiten diren lur mugimenduetan hazten dira erraz. Obra hauen arduradunak eta gure erakundeak lanean jarri beharko lirake landare inbaditzaileen hedapena eragozteko. Norberak ere, artazi batzuekin, asko egin dezake!



## Herriko hormen

### garbiketa: pintadak, pankartak, kartelak...

*Jon Kepa Gerrikagoitia (EAJ-PNVren zinegotzia, Hirigintza eta Zerbitzuak batzordean)*

Hainbat eta hainbat herritar egogaituta dago herriguneko espazio publikoak eta pribatuak pankarta, pintada, kartel, pegatina eta abarrekin ikustearekin. Ohiko irudia bihurtu da Oñati gure herrian. Gaur egun, tamalez, edozein eragilek antolatutako jardunaldi, ekintza edo

### ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

Fisioterapia,  
**GIMNASIA  
EMOZIONAL  
INTEGRAL**

Informazio gehiago  
hemar...

San Lorenzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI  
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

gertaera nahikoa aitzakia da gure herri-ondarea zikintzeko eta hondatzeko.

Era horretan, nabarmendu nahi dugu herrigunearen kutsadura bisuala (pankarta, pintada, kartel, pegatina...) areagotzen ari da Oñatin; Ausartzen gara esatera arazo ere bihurtu dela dagoeneko. Aipagarria da, besteak beste, adierazpen libreko guneak beti zikin dudelako, ez baitira garbitzen eta txukuntzen; Kultur Etxeko paretak ia beti daude pintadekin apainduta; baita beste hainbat eraikin historikoetakoak ere. Kartelak kolarekin pegatuta agertzen dira egun baten bai eta hurrengoan ere bai herri osoan, errespetu falta handiarekin. Gune batzuk, Bidaurreta eta Orbea Etxearen ingurua adibidez, pankartekin jantzita daude sarri-sarri.

Gogoratu behar da herri-ondarea (eraikin historikoak, monumentuak, Kultur Etxea, ikastetxeak, elizak, lorategiak, hesiak, hormak...) herritarrena dela. Zaindu egin behar dugu ondare hori, beraz. Hori guztia denona da eta ezinbestekoa da errespetatzea eta babestea, gure herrian (eta agure herriarekin) gustura eta harro egoteko. Horretarako, ariketa pedagogiko sakona egin behar dugu, eta baloreetan oinarrituta dagoen heziketa sustatu eta indartu (Herri Hezitzailea proiektua). Izan ere, gizarte garatua bilakatu nahi dugu, eta herri-irudi garbia transmititu nahi diegu belaunaldi gazteei. Ingurugiroa zaintzearen eta herri atseginarekin alderatu ezin da izan diskurtso hutsa. Ezinbesteko da gure herriak islatzen duen irudia zaintzea.

Gure iritzian, gainera, ezin daitezke ohikotzat hartu, adierazpen askatasunaren izenean eta aldarrikapen politikoaren izenean espazio publikoa eta pribatua zikintzen eta kutsatzen duten pankartak, pintadak, kartelak, pegatinak... Horietan agertzen diren erasoak, irainak mehatxuak eta mezuak hiri-altzarien zati izatea ezin da "normala" izan.

Bukatzeko, ezin da ahaztu garbitu egin behar dela zikindutako espazio publikoa eta pribatua; lan horrek dirua balio du, hau da, kostu ekonomikoa du.

## Kordobara biden

*Ander Lizarralde*

Lehenengo batian oñatiko Xabin Lusandizaga presoaren senide batekin topo egin nuen kalean. Kontatu



**AIZKORRIRA  
IGOERAK  
Miguel Martin**

- 2012an - **239** igoera
- 2013an - **273** igoera
- 2014an - **305** igoera
- 2015ean - **309** igoera

## Zuzenketa

Aurreko hilean akats bat izan genuen Miguel Martinek azken bi urteotan Aizkorrira egindako igoera kopurua aipatzean; 205 (2014) eta 209 (2015) idatzi genuen, baina datu hori ez da zuzena, beste hau baizik: **305** (2014) eta **309** (2015). Lehen ere ez ziren igoera gutxi, baina urteko ehun igoera kendu genizkion, nahi gabe, noski. Nori berea. Aurten ere, dagoeneko berrehun bat aldiz igo da Miguel Aizkorrira.

## Oharrak, deialdiak eta azken ordukoak

### 1981ean JAIOTAKOEN KINTTADIA

Azaroaren 12an. Bazkaria Etxe Aundi jatetxean, 14:30etan. Aurretik Oñati tabernan 12:30etan. Izena emateko azken eguna: urriak 10. Caja Ruraleko 3008 0198 27 3415151814 kontuan 20 €ko fiantza sartu behar da. Animatu!

### 1968an JAIOTAKOEN KINTTADIA

Azaroaren 5ean. Aferia Zumeltzegi Dorrean. Izena emateko azken eguna: urriak 21. Laboral Kutxa-ko ES71 3035 0005 34 0051075679 KONTUAN 31 € sartu behar dira. Animatu eta etorri primeran pasatzera!

## ALOÑA MENDIKO TXIRRINDULARITZA SAILAREN 50. URTEURRENEKO BAZKARIA

Urriaren 29an izango da, 14:30etan, kiroldegiko pilotalekuan. 50 urte hauetan txirrindulari, zuzendari edo direktiba lanetan ibili diren guztiak dauden gonbidatuta. Txartelak (25 €) urriaren 17rarte eskuratu ahal izango dira: Urcelay estankotan, Mail Boxes-en, Aloña Mendi tabernan, Caravanas Oñate eta Lizarralde Kirolak dendetan, Txokolateixan eta Bizipoz kafetegian. Animatu!

zidan irailean Kordobara bisita egitera zihoanean zer gertatu zitzaion. Goizeko laurak ziren eta Mirentxinen furgonetan zihoazen errepidean. Guardia Zibilen kontrol handi bat pasatu zuten, baina ez zuten furgoneta gelditu. Bi kilometro eta erdi aurrerago, ordea, paisanoen kotxe bat gerturatu zitzaion. Kopilotoak gorputz erdi kotxetik kanpora zeraman eta pistola batekin apuntatzen hasi zen. Kamino izkinan gelditu zen furgoneta. Paisanoak, pistolak eskuetan, barrura sartu ziren eta bi txoferrak aidean atera

zituzten, lurrera bota eta esposatu egin zituzten. Hamabost minutu inguru iraun zituen zirko hark eta ondoren joaten utzi zieten. Mirentxineko gidariek eta presoaren senideek jasan zuten tratua salatu nahi nuke eskutiz honetan

Euskal Herritik urrun bahituta daukate euskal preso politikoak eta salbuespeneko kartzela politika mende-katiak aurrera darrai. Euskal presoak etxera orain

## HAUTESKUNDEETATIK HARATAGO

**H**auteskunde kanpainan, politika sozialak pisu nabarmena izan dute. Eta, gaurko egoerari erreparatzen badiogu, ez da harrizkoa. Horien artean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Oinarrizko Errenta Unibertsalaren inguruko proposamenak agertzen zaizkigu alderdien programetan. Sarritan nahastu egiten dira biak, baina ez dira berdinak, ez esanahiaren aldetik, ez funtzionamendua eta eraginaren aldetik.

Lehenengo kasuan, oinarrizko beharrak estaltzeko baliabide ekonomikorik ez duten edo baliabide ekonomiko nahikoa ez duten eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzten pertsonentzat da. Hasieran behin behineko laguntza bezala ulertu zen, baina gau egun egiturazkoa eta funt-



Luis Guridi

sezkoa bihurtu da muturreko txirotasunari aurre egiteko. Euskal Autonomi Erkidegoan 65.000 hartzaile inguru daude, ondo ulertzen da eta, salbuespen batzuk salbuespen, onespenez zabala du gizartean.

Oinarrizko Errenta Unibertsala berriz, hiritar guztiak jasoko duten diru sarrera da, hiritar izateagatik, beste kontsideraziorik gabe. Dagoeneko ez da inon indarrean jarri Europar Batasunean, baina Finlandiako kasuan, alderdien arteko kontsentzu zabala duen eskuma koalizioko gobernuak martxan jarri nahi du 2017an. Beste zenbait lekutan, datu errealek erabiliz, proiektzioak egin dira Katalunian eta Gipuzkoan, hain zuzen. Ez da erraza ulertzea ez bada bere osotasunean planteatzen, hau da, beste fiskalitate eta pentsio

sistemaren aldaketa sakonaren barruan ez bada kokatzen.

Hauteskunde kanpainan, alderdi guztiak agertu dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta defentsarako prest, kobratzeko kopuruan eta baldintzetan daude ezberdintasunak. Oinarrizko Errenta Unibertsala, ordea, bakarrik EHBildu-k eta Elkarrekin-Podemos-ek aipatzen dute; eta eztabaida soziala irekitzearen alde agertu dira.

Baina eztabaida hau hauteskundetatik asko be haratago doa. Globalizazio honen barruan, azken lau hamarkadatan, aldakuntza teknologikoak izugarriko eragina sortzen ari du, eta ez bakarrik lanaren eta enpleguaren munduan, gizarte-antolaketan osoan ere. Gaur dugun egiturazko prekarietatea eta gazte langabezia horren bi adibide besterik ez dira. Eta horrek eztabaida lasaia eta sakona eskatzen du. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Oinarrizko Errenta Unibertsala, eztabaida horren bi atal besterik ez dira.



## HALA BAZAN EDO EZ BAZAN

**E**gia erlatiboa da. Hori gehienok dakigun egia da; erlatiboa baina, egia. Eta egi kontuak direla-eta, zenbat alditan entzun eta kontatu ditugun txutxumutxuak (guztiz egi izan gabe) egiak direlaketan. Batek hura esan du eta, besteak hara! Kaleko istoriek askotan, erdi-bidean galtzen dute egiaren kualitatea. Honek, ume nintzela jolasten genuen *el teléfono estropeado* ematen du; mezua lehenengoz helarazten duen pertsonak "ahate zahar hori txurria da" esaten bazuen, mezua jasotzen zuen azkenak "andra zaharra txuri dago" edo



Amaia Aranzeta

okerragoa jasoko zuen. Eta, kalean mintzatu eta zabaltzen diren istoriekin ere, maiz, berdina gertatzen da.

Arazoa, komunikazioa edo komunikazio eza dela esango nuke, askotan, presaka kontatzen diren istorioak direlako, gogo gutxikin entzuten direnak edo tentu ez ibiltzeagatik gaizki ulertuak. Horrela da hizkuntzaren ahozko transmisioa; baina, ez beti. Euskal Herriari eta euskal gizarteari, ahoz transmititutako istorio eta egi ederrak iritsi zaizkio ahozko ondarearen bitartez. Euskaldunon kultura eta bizitza aspek-

tu ugaritan egon da ahozko ondareari lotuta; bertsolaritza dugu horren adierazle kontemporaneo eta oraindik, tablatu gainetatik bertsotara transkribatuz, eguneroko bizitzan egi diren istorio pila bat iristen zaizkigu.

Gizarteko beste arlo batzuetan tamalez, ahozko ondarea ez da hain hiztuna, ez hain egia izaten (hortxe ditugu politikoa askoren berba-jarioak, prentsaren (des)objektibitatea edo telebistako plautoetan agertzen diren *celebrity*-en kasua). Hauek ere, ahozko komunikazioa, ahozko transmisioa lantzen dute, baina kalean kontatzen diren istorio askok bezala, bidean galtzen dute egiaren aztarna.

Egia erlatiboa da, baina aukeran, konfidantza gehiago ematen dit Jon Maia bertsotan abestutakoak, Belen Estebanek hitzetan jarriak baino.

# - Arazerixan -

## AISIALDIKO HEZIKETA



**I**kastetxeetako heziketa eredu formalaren aldean. Gure esparruan lan egiten duten hezitzaileek, ez denek, begiko jota edukitzen dute ikastetxeetan lan egitea, eta berandu baino lehen esparru horretara salto egiten dute. Esan dezagun beraz, aisialdian egiten den heziketa lana, nolabait, zenbaiten kasuan kaduzitatea duen lana dela. Hezkuntza formalean baldintza ekonomiko eta ordutegi hobeak, prestigio sozial handiagoa, edota agian hezitzaile bezala gehiago egin daitekeela uste dutelakoan. Anai txikia baino, txikia sentitzen den anaia da beraz batzuentzat aisialdian egiten den heziketa. Nere kasuan ez zait oraindik Gran Hermanoari bisita egiteko gogoa piztu, ez behintzat lan egitera joateko. Nahiz eta, agian, Psikologoaren kontsultan anai txikia sentitzea, txikia sentitzea, mina ematen didan zerbait dela aitortzera iritsiko nitzaken.



Gaiarekin jarraituz, eta hezkuntza formalean zentratuta, azkenaldian irakurtzen ari naiz maiz, entzuten ari naiz, gurasoak, profesional eta ikertzaileak (ume-gazteen iritziak kontuan hartzen al dira?) aldaketak proposatzen dituztela. Zerbait ari da gertatzen, erreakzioak baitaude. Hezkuntza eredu kolokan dago.

Ikastetxeak, aldi berean, eredu berriez entzuten ditut hitz-egiten: "Ikastetxe hartan lan metodologia berri bat ezartzen ari dira" edota "hemendik aurrera proiektu bidez egingo dugu lan". Hau entzunda, haur eta nerabeen beharretara egokituagoa den eredu berri bat izango dela nahi nuke pentsa, baita buruz ikasteak ez duela hainbeste garrantzia izango eskola modernoan, edota eskolatik kanpo "etxekolanek" pixua galduko dutela. Ikaslea, edo hobe esanda, pertsonaren jakinduri maila baloratzeko irizpide bakarra memoriazko azterketa ez dela izango. Hortaz, ez dakit gure begirada Finlandiarutz orientatu beharra daukagun zenbaitzuk etengabe dioten eran, baina bat egiten dut eredu berri baten beharra dagoela diotenekin. Ikastetxeetan mundialak diren profesional pila dago beste era batera lan egiteko desiatzen, ziur nago!

Gurean, haur eta gaztetxoek gurekin duten harremana borondatezkoa da, nahi dutelako datoz guregana, eta hori da beti erreferentziazko markoa. Haur eta gazteekin proiektuak lan egitea zuzenena dela aspaldian konturatu ginen gu! Hitza haur eta gaztetxoei ematen diegu gurean, eta hau ondo egiten dakigulako oso urrutira iristen gara, baita Oñatin ere. Ez dugu arazorik haur eta gazteekin hitz egiteko, elkar ezagutzeko, presa barik, beharrezkoa den denbora guztia eskainiz, ez baitago ezer hoberik. Azken finean, eta oso motzean azaldu badut ere, aisialdian lan egiten dugun eredutik, helburu hezitzaileak lortzeari begira, haur eta gazteen garapenean eragiteko izugarritzko indarra eta gaitasuna daukagula esan nahi nuke. Sormenetik, errespetuzko komunikaziotik, elkar onarpenetik eta inklusiotik egiten dugulako lan. Hori dela eta, gurea, haur eta gazteek behar dutenera asko hurbiltzen den eredu dela uste dugu, nahiz eta gizarteari begira geu anai txiki bezala agertu, askotan anai handia guri begira dagoela konturatu gara.

Gazteleketan, kale heziketan, ludoteketan, udaleketan, ... lanean gabiltzan hezitzaileok anai txikia handitu dadin egiten dugu lan, eta hezkuntza ez formalean "karrera luzea" egiten duten profesionalak gero eta gehiago izan daitezela nahiko genuke, ez baitugu zertan inongo konplexurik sentitu behar, ez behintzat pedagogiari dagokionean!

Nahi eta behar duzuen edozertarako zuen zain, Gaztelekuan gaituzue aurten ere!!

JON ORMAETXEA

OÑATIKO GAZTELEKUKO KOORDINATZAILEA

## Maidier Usandizaga Euskadiko txapeldun rallysprintean

Ekain Eizagaetxeberria getariarraren kopilotu gisa Euskadiko Rallysprint txapelketan nagusitu da Maidier Usandizaga oñatiarra, formula libreen kategorian.

*Mitsubishi Evo V* autoarekin, urtean zehar jokaturako zortzi probetatik bost irabazita dituzte, eta 125 punturen aldea atera diete bigarren sailkatuei. Bigarren denboraldia du Maidierrek kategoria honetan, eta Euskadiko txapalketa irabaztea ustekabea izan dela azaldu digu.



## Bi podiumekin borobildu du Gordoak itsas zeharkaldien denboraldia

Urteko azken bi probatan podiumera igota, amaiera borobila eman dio Xabier Gordoak itsas zeharkaldien denboraldiari. Irailaren 10ean Plentziako itsasadarreko travesia irabazi zuen, 3km.-ko ibilbidea 39'39"-an osatuz, eta irailaren 24an bigarren sailkatu zen Flysch Beltza (Ondarroa-Deba) zeharkaldian, 1:24:55ean osatuz 6,5 km.-ko igerialdia. Aurretik Lekeitioko travesia irabazi zuen Gordoak, eta beste hiru podium ere lortu ditu (Ondarroa, Deba eta Los 10.000 del Soplaio).



Gordoa Plentziako podiumean

## Iban Perez, Gipuzkoako Triatloi Federazioko buru izendatu dute

Iban Perez oñatiarra Gipuzkoako Triatloi Federazioko presidentea da uztailaz geroztik. Perezek hamabi bat urte darama Oñati Triatloi Taldean lanean, eta orain urrats berria eman du berak hainbeste maite duen kirol honen alde lanean jarraitzeko. Lantaldea osatu bezain pronto Gipuzkoako klubien arteko komunikazio kanalak hobetzea izango omen da bere lehen zereginetako bat.



## Mantxola eta Benito, Gipuzkoako eskubaloi Federazioan

Mikel Mantxola Gipuzkoako eskubaloi federazioko lehendakariordea izango da hurrengo lau urteetan, eta Francisco Benito ere batzordekide gisa ariko da, Francisco Barros errenteriarra buru duen zuzendaritza taldean. Biek ala biek urte asko daramatzate eskubaloiaren alde lanean, jokalaria, entrenatzaile eta epaile lanetan. Orain, hiriburutik urruti samar geratzen diren klubien ahotsa eramango dute federaziora.



## Egoitz Ataxaga nagusi bolotan

Egoitz Atxagak irabazi zuen Kurtze Baltz elkarteak antolatuta irailaren 25ean jokatu zen herriko bolo txapelketa. Atxagak 7 birlo bota zituen, eta bigarren posturako desberdinketa jokatu behar izan zen 5 txirlo bota zuten bost lagunen artean. Azkenean Karmelo Guridi sailkatu zen bigarren, eta Iñigo Irazabal hirugarren. Guztira 70 bat bolarik parte hartu zuten.



## Artzain txakurren txapela berriz ere Behe-Nafarroara

Behe-Nafarroako Marcel Hualdek eta *Etxe* txakurrak, 7 urteko *Border Collie*-ak, irabazi dute 57. Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa. Frantziako txapeldun Pascal Cacheux-ek ere lan bikaina egin zuen baina 2 puntura geratu zen, eta iazko txapeldun Gilles Etxegoienek osatu zuen podiuma



# KIROLDEGIKO BERRIAK

## ESKOLA KIROLA

Urriaren 10ean ekingo zaio Eskola Kirola programako astebunetako zerbitzuari, eta urriaren 15ean larunbatetako kirol jardunei.

## IGERIKETA ETA UR EKINTZAK

Igeriketa ikastaroak eta ur ekintzak (aquatrining eta aquagym) urriaren 10ean hasiko dira.

## JAI EGUNETAKO ORDUTEGIA

Urriaren 7a eta 12a jai egunak direnez, jaietako ordutegiarekin zabalduko da kiroldegia (9:00-14:00).

## PILATES HASTAPENA



Pilates Hastapena ikastaro berria egingo kiroldegian, urriaren 17, 19, 24 eta 26an arratsaldeko 8:15ean. Kiroldegiko harreraren eman behar da izena. Abonatuak: 17,75 €; ez-abonatuak: 22€.

## PILATES HASTAPENA



Hastapen ikastaroa. Urriak 21 eta 22. Ostiralean, 17:30-19:30 eta larunbatean 9:30-12:30. Plaza mugatuak. Kiroldegiko harreraren eman behar da izena. Abonatuak: 22,25 €; ez-abonatuak: 28,62 €.



# IKASTAROAK 2016/17 OÑATI

**LANERAKO PRESTAKUNTZA**  
**% 100 DIRUZ LAGUNDUTA**  
**HOBETUZ (Langileentzat lehenetsiak)**

IKASTAROA	KODEA	ORDU	AURPE IRAGURTIAK DATA
<b>FABRIKAZIO ARLOA</b>			
Mekanizazio tornu eta fresatze-makinan	UF0878 UF0881 UF0883	190	2017 Urtarrila
CNC programazioa	UF0879 UF0882	150	2017 Martxo
Soldadura, estaltako elektrodoekin	UF1640 UF1622 UF1623	220	2016/10/18 eta 2017 Martxo
<b>MUNTAIA ETA MANTENTZE-LAN ARLOA</b>			
Automatismo pneumatikoak eta hidraulikoak	UF0880	90	2017 Apirila
<b>DISEINU ARLOA</b>			
Ordenagailu bitartezko diseinua (CAD). Solid Edge.		40	2016/10/26 eta 2017 Martxo
<b>INFORMATIKA ARLOA</b>			
Word		60	2017 Urtarrila
Excel		40	2017 Otsaila
Google apps		20	2017 Martxo

**LANBIDE (Langabeentzat lehenetsiak)**

IKASTAROA	KODEA	ORDU	AURPE IRAGURTIAK DATA
<b>FABRIKAZIO ARLOA</b>			
Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak	UF0441 UF0442 UF0443	220	2016 Aberria
Ekipo ondasunen eta industria makinan muntaketa eta abiaraztea	UF0458 UF0457	120	2016 Aberria

OHARRA: Ikasturtearen hasieraz geroztik puzehartutakoekin lan-ematearen araberako aukerak dituzte.

**luzen-Ematea:** IES R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA BHI  
LARRAÑA Lanbide Heziketa egoitzan

San Lorenzo z/g


☎ 943 78 21 50

[harrerag@onati.net](mailto:harrerag@onati.net)  
[www.onati.net](http://www.onati.net)

*Epen zabaltzeko!!!*



# OÑATIKO II. LITERATURA TOPAKETAK



Liburutegien nazioarteko egunaren harira, literaturaren inguruko bi solasaldi antolatu ditu udal liburutegiak. **Bruno Montané** poeta kataluniarra, **Maialen Lujanbio** eta **Harkaitz Cano** dira gonbidatuak



Kontzeju | 26 | peñik

Urriaren 24a Liburutegien Nazioarteko Eguna da, eta hori ospatzeko Oñatiko II. Literatura Topaketak antolatu ditu udal liburutegiak. Iazko topaketek izan zuten harrera ona ikusita, aurten ere bi solasaldi antolatu dituzte, bata euskaraz, bestea gazteleraz, zein baino zein interesgarriagoak, goi mailako gonbidatuekin: Bruno Montané, Harkaitz Cano eta Maialen Lujanbio.

Urriaren 28an Bruno Montané (*Santiago de Chile*, 1957) poetaren bisita jasoko dugu.

Bere obra poetikoa ez da oso oparoa (bost poema liburu ditu) baina antologia eta aldizkari ezberdinetan ere idatzi izan du, eta lan handia egin du editore eta testu-zuzentzaile gisa.

Gaztetan Mexikon bizi izan zen, eta *Infrarrealismo* izenez ezaguna den mugimendu abangoardista sortu zuen, Roberto Bolañorekin batera. 1977az geroztik Bartzelonan bizi da. Oñatiko saioan Montané-ren poema hautatu batzuk irakurri eta bere lana eta bizitza interesgarria ezagutzeko aukera

**TXILEN JAIO  
ETA  
BARTZELONAN  
BIZI DEN  
BRUNO  
MONTANÉ  
POETAREN  
LANA ETA  
BIZITZA  
EZAGUTZEKO  
AUKERA  
IZANGO DUGU**

izango dugu, Ruben Arias, liburutegiko gaztelerako irakurle taldeko dinamizatzailearen eskutik.

Aurretik, urriaren 26an, aurkezpenik behar ez duten Maialen Lujanbio eta Harkaitz Cano izango ditugu hizlari Oñatin. 'Irakurlea ez da izaki bakartia' jarri diote izenburua solasaldiari. Euskarazko irakurle taldeko dinamizatzaile Danele Sarriguartek gidatuko du saioa.

Herritar guztiak daude gonbidatuta topaketa hauetan eta beste ekitaldietan parte hartzera.

 **ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

 **PAKITA**  
Altzariak

Berozao Ind. 10      5ta. Marina, 6  
Tel. 943 78 14 64      Tel. 943 78 02 21

BU, XALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINGAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia

Larrañe auzoa, 44  
Tel.: 943 78 25 97  
Mug.: 688 630 754  
OÑATI

Baserritiko ogia, egurrezko liburuak

# Bibliotekaren Eguna

## EGITARAUA

### URRIAK 24, ASTELEHENA

#### ITZAL-TITEREEN ANTZEZLANA

'Zurrunka' antzerki taldearen eskutik 'Iraungorriko Marimi' itzal titeren antzezlan, 5-12 urteko haurrentzat. Kultur etxeko zine aretoan, 17:00



### KATA LITERARIOA

'El sabor de la literatura: chocolate y libro'.

Literaturak dituen zaporeak deskribatzen saiatuko gara, txokolate mota ezberdinak dastatzen ditugun bitartean. Helduen liburutegian, 19:00



### URRIAK 26, ASTEAZKENA

#### OÑATIKO II. LITERATURA TOPAKETA (Euskaraz)

'Irakurlea ez da izaki bakartia'. Gonbidatuak: Maialen Lujanbio eta Harkaitz Cano. Dinamizatzailea: Danele Sarriugarte. Helduentzat. Kultur etxeko zine aretoan, 19:00

### URRIAK 27, OSTEKUNA

#### OSTEGUN KONTALARIAK

3-5 urte haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa Lur Kortarekin. Gonbidapenak banatuko dira aurreko astean zehar. Haur liburutegian, 18:00



### URRIAK 28, OSTIRALA

#### BELDURREZKO EFEKTU BEREZIAK

Beldurrezko efektuak sortzen ikasteko makillaje tailerra (9-12 urte). Haur liburutegian, 17:00



#### OÑATIKO II. LITERATURA TOPAKETA (Gaztelaraz)

'Bruno Montané: vida, obra y oficios de un poeta'. Gonbidatua: Bruno Montané. Dinamizatzailea: Rubén Arias. Kultur etxean, 19:00



### URRIAK 29, LARUNBATA

#### OLERKI XUXURLATUA

'Kalabazan' kultur ekimeneko kideak kalez kale ibiliko dira olerkiak xuxurlatuz herritarren belarrietara. Herriko kaleetan, adin guztientzat

## Liburutegiek bete beharreko funtzioak



Arantazu Ibarrondo  
udal liburutegiko  
zuzendaria

Urriaren 24an **LIBURUTEGIEN NAZIOARTEKO EGUNA** ospatuko da mundu zabalean eta azken bi urtetan bezala, Oñatiko Udal liburutegiak hainbat jarduera antolatzeaz gain, **liburutegiak gaur egungo gizartean duen papera** azpimarratzea nahiko genuke.

Halaber, egun honekin gizarteari adierazi nahi zaio zeintzuk diren liburutegiek gaur egun betetzen dituzten funtzioak. Izan ere, liburutegiak hiritarren topaleku bihurtu dira, bertara joaten diren irakurleek eta hiritarrek edozein gairen inguruko informazioa, kultura zentzu zabalean eta aisialdirako hainbat gai lantzeko aukera dute. Horrez gain, liburutegiak bizikidetzarako guneak gara. Gizarte alfabetatuak, informatuak eta parte hartzaileak eraikitzeko oinarritzko zerbitzua.

Gure komunitateari eduki berriak sortzen eta eduki zaharrak berrerabiltzen laguntzeko gai izan behar gara.

Gure ondare kulturalaren (bere formatu guztietan: tradizionala, historikoa, bertakoa, gaur egungoa...) babesarako ekintzak eta beharrezko kolaborazioak gauzatu behar ditugu.

Liburutegiak ez bairik gabeko **balio soziala edukitzeaz gain, balio ekonomikoa ere badu**. Liburutegiak **sorkuntza sustatzen du eta ez soilik kontsumoa**.

Hau dena lortzeko, liburutegiak komunitateen ezinbesteko aktibo gisa onartuak izan daitezten ikuspuntu aldaketa sustatu behar dugu eta horretarako herritarren kolaborazioa ezinbestekoa zaigu. Zure ideiak, proposamenak, beharrak eta ametsak gure egunerokoa bultzatzen dute.

Literatura topaketak, poesia, ipuin kontaketak, kata literarioak, tailerrak eta beste hainbat ekimen antolatu ditugu egun honen aitzakian. Hurbildu zaitez zure herriko liburutegira eta ospakizunetan parte hartu!



caravanas Oñate

• GALBARAGINTZA - CALDERERIA  
Oñateko zabalzaila, 25 • Tel.: 943 71 63 60  
[www.caravanasoñate.com](http://www.caravanasoñate.com)

• BIZIKLETAK  
• ERREMOLKEAK  
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK  
Oñateko zabalzaila, 25 • Tel.: 943 78 05 65  
Atzeko kale, 32 (erakusketak)






Musika  
elektronikoaren  
jaialdia  
ospatuko da  
Gaztelekuan  
urriaren 15ean

## SOMEDAYLAB izeneko bere diskoetxea aurkeztuko du Iñaki Cerqueirak

Oñatin ez gaude oso ohituta musika elektronikoa entzutera, baina urriaren 15ean *techno* doinuek hartuko dute Gaztelekua zortzi orduz (16:00-24:00). Iñaki Cerqueira oñatiarrak *Somedaylab* izeneko bere diskoetxea aurkeztuko du, eta bere zigiluarekin lan egiten duten zazpi artista ariko dira DJ lanetan. Iñakik berak azaldu digu jaialdiaren nondik norakoa.

**Zer dela eta antolatu duzu SLOF (SomedayLab Official Festival) jaialdia?**

*SomedayLab* izeneko diskoetxe bat sortu dut, eta herrian egin nahi dut lehenengo aurkezpena. Nire zigiluarekin lan egiten duten zazpi DJ ariko gara 8 orduz Gaztelekuan, arratsaldeko 4retan hasita. Jaialdi polita izango da. Oñatin ez dago musika elektronikoa entzuteko ohitura handirik, eta aukera ona



**Cerqueiraren *SomedayLab* zigiluarekin lan egiten duten zazpi artista ariko dira DJ lanetan ([www.facebook.com/somedaylab](http://www.facebook.com/somedaylab))**

izango da gure lana bertatik bertara ikusi, eta musika estilo honetara (*Techno, Tech House, Deep House, Minimal...*) hurbiltzeko. Animatu dadila jendea!

**Urtarrilean sortu zenuen *SomedayLab* izeneko diskoetxea. Zer moduz doa?**

Bizirauten, oraingo. Poliki poliki. Mundu honetan zigilu asko daude, eta zaila da izen bat lortzea. Diru asko inbertitu behar da hasieran; izen bat duten artistekin lana egiteko ordaindu egin behar diezu, promozio lana ere egin behar da... Dena da publizitatea, eta dirurik ezean, zaila da ondo posizionatuta egotea. Baina ari naiz bidea egiten, astiro astiro. Orain arte zortzi disko atera ditut; hilean bat.

Oraingo musika elektroni-

koan zentratuta nago, baina etorkizunean, beharbada, beste musika mota bat ere sartuko dut.

DJ eta produktore lanetan ez ezik, sortzaile lanetan ere badiharduzu. *Subway* izeneko diskoa atera berri duzu, eta beste bi lan omen dituzu prest. Bai, kuriosoa da. Orain dela hiru urte dena uztekotan egon nintzen, baina sekula baino gogo eta indar gehiagorekin bueltatu nintzen. Azken bi urte hauetan 13 disko atera ditut (2-3 kantuko lanak izaten dira), eta beste 12 diskotan egin ditut kolaborazioak.

#### Nola sortzen duzu musika?

Musika analogikoa eta digitala uztartuz. Jende askok *loop*-ak (eginda dagoen musika) erabiltzen ditu, baina nik neuk sortu egiten dut musika; *loop*-en bat erabiltzen dut, baina *sampleatu* egiten dut.

*Techno*, *Techno House*, *Deep House* eta *Minimal* estiloak jorratzen ditut, musika elektronikoaaren barruan beti ere. Tarteka, musika pausatuagoa egitea ere gustatzen zait, eta halako lanetan *Autumn Leaves* ezizena erabiltzen dut.

#### Jarraitzaile asko al ditu zure musikak?

Eskaintza oso zabala dago mundu honetan, eta zaila da ezaguna izatea, baina ezin naiz kexatu. Salmenta zerrendako top-11 izatera iritsi naiz, eta nire abesti batzuk munduko DJ onenek (*Richie Hawtin*, *Joseph Capriati*, *Stefano Noferini*, *Ben Hoo...*) jartzen dituzte, eta horrek lagundu dit pittin bat ezagunagoa izaten.

#### DJ lanetan ere aritzen zara, eta sala handitan gainera, ezta?

Erroman, Frantzia, Madril, Malagan, Gasteizen, Bilbon, Donostian... eta beste hainbat lekutako diskoteketan ibili naiz. Musika elektronikoa arloan munduko irratirik inportanteenak diren *Ibiza Sonica Radio*



Iñaki Cerqueira, bere etxeko estudioan ([www.inakicerqueira.com](http://www.inakicerqueira.com))

eta *Pioneer DJ Radio* irratietan ere egin izan ditut zuzenekoak.

Bi hilabetetik behin egiten dut zuzenekoaren bat. Lehen saio gehiago egiten nituen, baina gaur egun ez dago oso ondo baloratuta, eta ez badute ordaintzen, nahiago dut etxean geratu musika sortzen.

**DISKOETXEA**  
**Orain arte**  
**9 disko**  
**produzitu**  
**ditut**  
**SomedayLab**  
**zigiluarekin**

Tamalez, Oñatin ez dago musika elektronikoa entzuteko ohitura handirik.

Ez, eta pena da. Tabernetan batez ere musika komertziala entzuten da, eta musika talde gehienek *rock*, *heavy* edo *punk* estiloko musika egiten dute. Itxiegiak garelara iruditzen zait.



## Tximeletaren zigilua

*SomedayLab* (egunen batean, labela=zigilua) du izena Cerqueiraren diskoetxeak, eta tximeleta bat irudi bezala. Hegan egin eta aske sentitzen denaren aldarria da, nolabait. "Musika estilo hau lantzen duen bakarrenetakoa naiz Oñatin, eta oso zaila da gurea bezalako herri txiki batean bidea egitea musika mota honekin. Horregatik jarri diot izen hori, erreibindikazio modura, egunen batean aske izango naizela esanez".

## "Musika estilo hau drogekin lotzen duen irudia Faltsua da"

Askotan lotu izan da musika elektronikoa drogarekin, baina Iñakik erabat baztertu nahi du ideia hori. "Komunikabideek behin eta berriz sartu diguten irudia da, baina ez dauka zerikusirik. Kendu egin behar dugu burutik ideia hori. Hemen ez zaio inori droga ahoan jartzen; norbait drogatzen bada, berak nahi duelako izango da, baina beste edozin musika estilotan gerta daitekeen moduan". Ideia okerrak baztertu, kultura musikala zabaldu eta musika elektronikoa ezagutu eta gozatzeko gonbitea luzatzen die Iñakik herritarrei.



# San Juan Artia

> Jerardo Elortza

Ume-umetatik erakarri nau San Juan Artia izeneko para-jeak. Sasoi hartan urruti eta aparte zegoen leku misterio-tsua zen guretzat; beldurgarri samarra ere bai: *Ondo portaitten ezpazara, San Juan Artixara morroi bialduko zaugu!* edo antzekoak esaten zizkiguten gure haurtzaroan. Hango bizilagunak ezagutu genituen 1950eko hamarkadaren erdi aldera baserria hustu aurretik.

Gerora jakin genuen garai bateko ermita eta benta zahar hark garrantzia handia eduki zuela Oñatiko historian; gure herritik Araba aldera joateko, handik pasatu beharra zegoela, alegia; eta goialdeko baso eta mendi bakarti haietan ez zela beste aterpe eta babeslekurik, batez ere neguko elurte gogorrek nagusitzen zirenean.

Aspalditxotik neukan susmoa toki hori antzinako bizilekua izan zitekeela. Oñati, Erdia Arozaz geroztik, Ipar Arabako jauntxo gebaratarren uztarriak lotzen zuen. Hori dela eta, San Juan Artia eta Katilluiturrin makina bat mandazain eta bidazti ibiliko zen aurrera eta atzera, gizaldi askotan. Orduan alda-



Kapirixo taldeko kide batzuk San Juan Artian.

pak ez ziren eragozpen bate-  
tik bestera igarotzeko.

Horregatik, asko poztu nau Iosu Etkezarraga arkeologo donostiarrak San Juan Artian iaz egindako kata batzuetan XII. mendetik XIV.era bitarteko aztarnak aurkitu dituela jakiteak. Udazken honetan egitekotan den indusketa sakonagoan gizaldi ilun horietako gure historia gehixeago argituko duten lekukoak agertuko direla pentsatzen dut. Ea egia den.

Duela hogeitau urte pasatxo igoginen Kapirixo elkarteko kide batzuk San Juan Artia, Kalahorrako bide zaharrean gora;

## BISITA GIDATUA URRIAK 12

> Iosu Etkezarraga arkeologoa Artian egiten ari den indusketa lanak bertatik bertara ikusteko bisita gidatua egingo da urriaren 12an, Natur Eskolako kideek gidatuta. Hitzordua 9etan plazan.

inguru haiek zehatz-mehatz ezagutzen zituen Bitoriano Gandiagaren gidaritzapean, hain zuzen ere. Eta gogoan dut, benta-ermita-baserriaren hondakinen aurrean, orduan gure artean egin genuen komentarioa: *San Juan Artixak merezi dau, ba, azterketa on eta sakona egittia!* Iritsi da, zorionez, aukera hori.

**COINBROKER**  
ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

Aranzazuko Armi Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 7189 707    ✉ [oinbro@coinbroker.eus](mailto:oinbro@coinbroker.eus)  
🌐 [www.gizarteko.coinbroker.eus](http://www.gizarteko.coinbroker.eus)

**TABERNA • JATETXEA**

Bidebarrieta 6  
Tel: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

## HISTORIA TXATALAK

## Oñati 'erori' zen eguna

>80 urte bete dira Oñati matxi-noen esku geratu zela. 1936ko irailaren 20 eta 21ean izan zen, militarren altxamendutik bi hilabetera. Saleta kapitaina buru zuen matxinatuen konpainia sartu zen Oñatira, Udantatik behera, eta hantxe bertan, Udana gainean, hil zuten erreketee lehenengo oñatiarra, milizianoen bandoarentzat zaintza lanak egiten ari zen Paziano Ituarte.

Kolpe militarren lehen berriak iritsi orduko, lehen talde armatua (Oñate kopainia) eta Errepublikaren Defentsarako Batzordea sortu zituzten herrian, baina nazionalak ez zuten erresistentzia handirik aurkitu, eta hilaren 21erako nagusi ziren Oñatin. Ihesean, Madalenako zubi biak bota zituzten errepublikarrek, eta San Prudentzian egin zieten aurre frankistei astebetetz, irailaren 28an Eloorriontz ihes egin behar izan zuten arte. Bostehundik gora herritarrek alde egin zuten.

Oñatin bertan ez zen borroka edo tiroketa handirik egon, baina, hala ere, matxinatuen errepresio oso bortitza izan zen. Hogeita bi oñatiar hil zituzten fusilatuta, eta bestelako errepresio neurriak ere ugariak izan ziren: ondasunen bahiketak, isunak, kartzela, lan batailoak, mehatxuak, burlak... Frontean 80 bat oñatiar hil ziren, bi bandoetakoak kontuan hartuz. Gerrak eten handia eragin zuen herritarren artean.

## Larraña

&gt; Jerardo Elortza

Oñatin baserri-giroko auzoetan azkeneko gizaldian aldakuntza gehien jasan duena, Goribar eta Zubillagarekin batera agian, Larraña izango da. Hirigune historikotik hain hurrean egoteak badu kontu horretan zerikusirik. Izan ere, 1960ko hamarkadatik aurrera gure herrian egin diren **etxe-poligono asko** auzo horretako lur-sailetan jaso baitira: Errekalde gehiena, Olakoa, San Lorentzo eta Ugarkalde, milaka biztanle hartzen duten eraikuntza berriak.

Larraña, baina, askoz zaharra goa eta zabalagoa da. Erdi Aroaz geroztik agertzen da hainbat dokumentutan. **Baserri gehienak behealdean zeuden**, nekazaritzarako soro aberatsekin, baina eremu hori azkenaldian neurri handi batean etxebizitzaz bete da; beheko parte horretan **industria garrantzitsua** ere kokatu zen Olaran erreka ondoan: **Olako errota eta ola** luzaroan, gerora **Mugartzaneko zerra** bilakatuko zena, eta **Maiztegi txokolate-fabrika** XX. mendean. Gaur egun Ugarkaldeko presa, Olako dorrea eta ahateen bizileku bihurtu den malatu-zatia geratu zaizkigu antzinako industria horren lekukotzat.

Dena den, beste leku aipagarri batzuk ere baditugu inguru horie-

## AUZORIK AUZO

tan: adibidez, bostehun urte dauzkan **Bidaurretako mojen komentu ederra**, benetan nabarmentzekoa arte nahiz historia aldetik; **Garai familiak**, Larraña hainbat baserri eta sail erositako duela gizaldi bat sortutako **finka handia**; etxe artean geratu den **San Lorentzoren ermita** xaharra; honen ondoan orainago fraide laterandarrentzat eraiki zen **seminarioa**, harrezkero ikastetxe desberdin asko bere baitan eduki dituen, eta egun **Eltzia** izeneko egitasmo herritarren egoi-tza dena; edota, hainbat otordu, jai eta ospakizunen txoko bihurtu den **Larringain elkarte**.

Auzoak badu, ordea, Lizargarate-raino heltzen den **paraje menditsu eta aldapatsua**: zortzi bat baserri sakabanutuk osatzen dute Larraña goialde hori; Saramendi inguruan eskola bat ere antolatu zen hor XX. mendean Aurrekomendiko haurrentzat; **orain baserri gehienak hutsik daude baina ez utziak**; basoak bereganatu ditu garai bateko soroak, zelaia eta txondorlekuak. Alabaina, neurri batean Lizargarate elkartearen bitartez eusten zaio Arrekomendiko auzotasunari.

Bi hitz aritu dira borrokan historian zehar auzo hau izendatzeko: **Narria** eta **Larraña** (Naharria eta Laharria sasoi batean). Orain ofizialtzat Larraña gelditu baldin bada ere, bestea ere sarritan entzuten da edade bateko auzotarren artean, eta biak jatorri eta esanahi bertsukoak izango dira, seguru aski.

Honekin baserri-giroko auzoen hamaseigarren lantxo burutu denez, amaitutzat ematen dugu gure sail hau. Mila esker ahalegin honetan lagundu diguzuen guztioi!



**ESKAINNTZA 90€** BEREZIA

**EZKONTZETAN** 2016-2017 urteetan

Informazio gehiago,  
Tel. 943 78 19 56  
[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

Etxeaundi

## AGENDA

# 10

URRIA



### IKASTARO-TAILERRAK

#### > URRIA-ABENDUA

**ARGAZKIGINTZA IKASTAROA**  
Urriaren 22tik abenduaren 3ra. Larunbatetan: 9:00-13:00. Plaza mugatuak (12). Prezioa: 75 €. Izen-ematea: Plazaola argazki dendan / [plazaoladigital@gmail.com](mailto:plazaoladigital@gmail.com).

#### > URRIA-APIRILA

**MACROSANO  
MUNDUKO ZAPOREAK**



Beste herrialde batzuetako (Japon, India, Txina, Ekialdi Hurbila, Maroko, Mexiko eta Tailandia) errezetak ikasi eta gozatu, produktu integralak, biologikoak eta beganoak erabiliz, eta zaporea galdu barik. Prestatutakoa jan egingo da, zalantzak argitzeko. Larunbat goizetan izango dira saioak (10:00-13:00), hilean bat, urriaren 8an hasita, Araotzen. Informazioa: 658719083 edo [isabel@macrosano.com](mailto:isabel@macrosano.com).

### BERTO JAIALDIA

#### > URRIAK 7

**ZUBIKOAN, 22:30**

**Bertsolariak:** Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Maider Arregi eta Urko Egaña. **Gai-jartzailea:** Oñatiko Bertso Eskola. Sarrerak salgai Tokolateixan

### ERAKUSKETAK

#### > URRIAREN 16rarte

**PINTURA ERAKUSKETA**

Ageriko Margo lehiaketara aurkeztutako lanak eta pintura ikastaroetako ikasleen lanak ikusgai. Kultur etxean, astelehentik igandera, 18:00-20:00

#### > URRIAREN 16rarte

**PINTURA ETA ESKULTURA**

Arantzazuko Gandiaga topagunean, Alvarez de Eulate, Iriondo, Arriola eta Egañaren lanak ikusgai, eta baita Alvarez de Eulate pintura lehiaketara aurkeztutako lanak. Larunbata (11:00-14:00 / 17:00-19:00) eta igandetan (11:00-14:00).

### KONTZERTUAK

#### > URRIAK 8 / 22:00

**LIHER + PHYSIS Vs NOMOS**

Lide Hernandok tadearekin atera duen 'Hauts' diskoa aurkeztuko du Gaztetxean.

#### > URRIAK 12 / 11:30

**ORGANOA ETA KANTUA**



Aitor Olea organujoleak eta Amaia Azpiazu soprano oñatiarrak Aita Madinaren musikarekin grabatu duten CDA aurkeztuko dute Arantzazuko basilikan. Doan.

#### > URRIAK 21 / 22:00

**The Kagasen bertsoiak + Aitor Regueiro + sorpresa**

Punk-rock gaua Gaztetxean.

#### > URRIAK 22 / 22:30

**IZAKI GARDENAK**



'Aurri gara' izeneko bere azken diskoaren aurkeztuko du Oñatiko Gaztelekuan.

### ASANBLADA

#### > URRIAK 7 / 20:00

**ANTIXENA GAZTETXEAN**

Arratsaldeko 5etatik aurrera gaztetxearen garbiketa orokorra eta 8etan ikasturteko lehenengo asanblada.

### + INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



## BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN  
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50





## LEHIAKETAK

### > URRIAK 9

#### ARGAZKI LEHIAKETA

Aloña Mendik antolatutako Mendia eta Natura lehiaketara lanak urriaren 9a baino lehen aurkeztu behar dira [www.concursosdigitales.com](http://www.concursosdigitales.com) atarian.

### > AZAROAK 5

#### LABURMETRAI RALLYA

Oñatiko VII. laburmetrai rallya

## IKASTAROA

### > AZAROAK 12-13

#### 'Animal Communicator y conciencia animal'

Animaliekin komunikatzeak geure buruarekin eta inguruarkekin hobeto sentitzen laguntzen digu. Pottokalekun: [jelorzarza@hotmail.com](mailto:jelorzarza@hotmail.com)

## ANTZERKIA 'KONPOSTEROAK'

### > URRIAK 21

#### GAZTELEKUAN, 18:30

Zirika Zirkus taldearen eskutik 'Konpost Eroak' ikuskizuna. Hondakinak bereizten eta berrerabiltzen ikasiko dugu, zirkoa, musika eta maitasuna uztartzuz.

## HITZALDIA

### > URRIAK 18 / 17:30

#### 'AITON-AMONAK'

Fernando Mendigurenen hitzaldia Pake Leku elkarteko aretoan.



## ESKULAN IKASTAROA

hari lanak, eskulan dekoratiboak, pintura, zeramika eta sendabelarrak



Udaleko kultura sailak 2016-2017 ikasturterako antolatu dituen eskulan ikastaroetarako izen-ematea zabaldu du. Aurtengo eskaintzan nobedade bat dago: sendabelarren tailerra. Baina ikastaro hau urtarrilean hasiko da, eta izen ematea ere orduan zabaldu-

go da. Gainerako tailerrak azaroan hasiko dira, eta urriaren 19a baino lehen eman behar da izena, kultur etxean (16:30-20:30) edo [kultura.idazkaritza@onati.eus](mailto:kultura.idazkaritza@onati.eus) helbidean. Ondorengo QR-an ikus dezakezu informazio guztia.



## LIBURUTEGIKO BERRIENAK



DVD

"Steve Jobs"



DVD

"El viaje de Arlo"



DVD

"La juventud"



DVD

"Anomalisa"



DVD

"Mustang"



DVD

"Zootropolis"

## MERKATU TXIKIA

> **Etxebizitza** edo logela bila nabil alokatzeko. Deitu: 602152310 (Nagore).

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ANDUAGA San Lorenzo 3, 943 78 21 16**

Urriak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27, eta azaroak 4, 5 eta 6.

**IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**

Urriak 10, 11, 12, 19, 20, 28, 29 eta 30, eta azaroak 7 eta 8.

**GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**

Urriak 13, 21, 22, 23 eta 31, eta azaroak 9 eta 10.

**JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**

Urriak 5, 6, 14, 15, 16, 24 eta 25, eta azaroak 1, 2 eta 3.

## PINTURA LEHIAKETA

Anton Urresti mendarorak irabazi du aurtengo aire libreko pintura lehiaketa. Bigarren saria Carlos Espiga (Bilbo) jaso du eta hirugarrena M<sup>a</sup> Teresa Durák (Elche). Oñatiko onenaren saria Xanti Ugarterentzat izan da. Gaztetxoan mailan, Alaine Agirre, Lorea Atxa eta Lur Gezalaga izan dira sarituak. Nagusien mailan 15 lan aurkeztu dira, eta gaztetxoenean 12. Urriaren 16rarte egongo dira lanak ikusgai kultur etxean.





# ITTEN BAT

(\*) Itten: arrastua, pistia

## Txiste kontari

Egun baten etorri zan sakristaua abadiagana erretabluan San Antonio falta zala esanaz, eta orduan abadiak:

- *San Antonio falta dala? Heu ifiñiko haugu!*
- *Konforme!* —bestiak.

Sakristaua santuaren erropiarekin jantzi euen eta mosu dana eztixagaz ondo igurtzi ondoren ederto itzi euen erretabluan jarteko.



Hurrengo jaixan, abadiak pulpittora igo eta holaxe esan eben:

- *Ikusi, San Antonio barrixa dakogu. Fan zan hillian desagertutako irudixaren ordiazkua egin eta hortxe dago dotore asko, ia aurrekuak baiño gehixago irauten dauen!*
- *Bai, bai, baiña mobitten ete dan* —behetik eliztar batek.

Eta sakristauak erretabloko idulkittik(\*):

- *Mobiuko enauk ba! Elizako euli danak neregana etorten hasi xatak-eta!*

(\*)Idulki: pedestal

## Goguan hartzekuak

-PE/-BE oso atziki emunkorra dogu, leku-izenetan, izen arruntakin eta zenbait esaeratan be agerketan xaku. Ikusi degigun:

### KORPUTZ ATALAK:

*Agopeia, besapeia, minpeia, okozpeia, surpeia...*

**Agopeia:** *Agopeian egitten dau berba eta etxako ezer entenditten.*

**Minpeia:** *Berba egin dauen horrek eztako minpekorik.*

**Buztanpeia:** *Txakurrak xakok/n buztanpeian!*

**Ostikopeia:** *Ostikopeian naukai, lana gogotik eragin eta gaiñetik barre egin!*

### TOPONIMUAK:

*Harripe (tabernia), Aittape (Baserri- eta famelixa-izena), Sandalipeko presia (Jaturabe), Haizpeekuak (Urrusulakuak)...*

### LEKU ARRUNTAK:

*Presapeia (Usakoko presapeia), malatupeia, etxepeia, elizpeia, zinepeia, arkupeia, aterpeia, zubipeia, erlojupeia, automobilpeia, mahaipeia, armarixopeia, arbolapeia, keizapeia eta kontzejupeia eta, hortik, Kontzejupetik, gure aldizkarixa.*

**Ohepe:** *Sartu, sartu barrura, gurian badira uhe hainbat uhepe!*

**Illunpe:** *Araozgo lehenagoko zine-aretuaren izena.*

**Gonapeia:** *Alde egizu nere gonapetik.*

**Txintxinpeia:** *Etorri barrura txintxinpeian egon barik.*

**Euripeia/ Laiñopeia:** *Euripeian / laiñopeian pasau dogu eguna.*

**Sasipeia:** *Basabehiak sasipeian ezkutaitten dittuk ihesixan doiazanien.*

**Supeko artua:** *Txingarren azpitan erretako artua edo tremesa.*

A, eta ez ahaztu Oñatikkuak kondepekuak izan gariela XIX. gizaldira arte!

## Esaera zaharrak osotu, ikasi eta eballi

1. Lan honekin etxuagu/etxonagu .....
2. Zuelakuakin etxuagu/etxonagu behinguan .....
3. Honegatik edo haregatik .....
4. Errementarixaren etxian .....
5. Etxian-etxian gelaatzua baltza .....

Aukerak: a) *etxeko lanak egin barik* b) *zotza burduntzi* c) *eta geurian baltzena* d) *fraka barririk egingo!* e) *Naparrua barrixa egingo.*

## Zer moduz? eta Zer moduzkua? desbardinddu

Lehenengua zela/nola galderiaren sinonimua da, eta bigarrena zelakua/nolakua galderiarena.

Ikusi degigun ejenplo batzuk:

**Zer moduz** (egon ziñain) *atzoko bazkarixan? Ondo, primeran, uste baiño hobeto... egon giñan.*

**Zer moduzko bazkarixa** *emun otsuen, ba? Ona, gozua, primerakua, ederra, ondo goxautakua, bikaiña, aparta... emun oskuein*

**Zer moduz** *zagoz? Erre-erre egindda nago. Edo, kokoterañño, haserre, sutan, pozik...*

**Atzo zer moduzko eguna** *pasau zebein Donostian? Egun elegantia pasau geben. Edo, txarra, betia, alaia, tristia, luzia, akabera bagekua...*

Kalian:

**Zer moduz** *bizi haiz?*

**Zer moduzko** *bizimodua doiak/n?*

Ortuan:

**Zer moduz** *datoz tomatiak?*

**Zer moduzko** *tomatiak datoz?*



## Danborradiaren aurretiko danbor-jotia

**G**orabehera batzuekin bada be, klasikua bihurtu xaku Oñatiko jaixetako danborradia. Lehenengo aldiz 1960ko hamarkadan urten ebenetik gaur egunera arte, hamaika herritarrek hartu dau parte San Migel bezperako fiesta-ibillera zarata-tsu horretan, edota aurreko zapatuan kaleraketan dan umien danborradan.

Baiña gaurko fotografixiak lehenagoko beste danborrada-klase bat erakusten dosku. Oñatiko musika-bandiak Santa Marinaran eukan *txarangara*, hau da, musika-eskolara, mutiko pillatxua faten zan solfeua eta instrumenturen bat joten ikastera, **Antonino Ibarrondoren** zuzendaritzapeian. Ba, musika-ikasle horrekin danborrada moduko bat antolatu zan, bandiarekin batera herriko pasakalliak alaietako egun eta jai señalauetan. Urte banaka batzuetan iraun ei eben.

1950eko hamarkadiaren akabera aldera ataratako argazki honetan agiri diranen artian ondorengo honeik ezagutu dittugu:

Aurreneko illaran ezkerretik eskumara eta danborra joten: **Jon Kortabarria**; **Jabi Alzelai**; **Iñaxio Inza**; eta **Juan Mari Aberasturi**.

Bigarren illaran: **X. X.**, klarineteduna; **Jabier Galdos**, klarinetia; **Joxe Luis Madinagoitia**, saxofoia; eta **Migel Galdos**, danborrarekin akaso.

Hirugarren illaran: **X. X.**, tronpetaduna; **Tomas Baños**, klarinetia; **Jabier Ugarte**, klarinetia; eta **Roberto Maiztegi**, klarinetia.

Atzekaldian: **Agustin Ugarte**, klarinetia; eta **Ernesto Unzurrunzaga**, klarinetia.

Eskumakaldian dagozen mutikoetatik **Juan Peralta**, **Pedro Biain**, **Anton Elortza**, **Eujenio Baños** eta **Jexux Irizar** identifikau dittugu; eta barrenian **Joxe Mari Uriarte**, **Tomas Arregi** eta **Juan Kruz Zubizarreta**, bestiak beste.

J. E.

Fotografixia Udal Artxiboko Arzuaga Fondokua da eta guri Izar Salaberri artxibozaiñaren bittartez ailegau xaku. Argibidiak, berriz, **Jexux Irizar**, **Iñaxio Inza**, **Ernesto Unzurrunzaga**, **Joxe Luis Madinagoitia**, **Anton Elortza** eta **Iñaxio Ibarrondok** eskuratu doskue. Eskerrik asko danoiri!



ZERKAOSTETA 3

TEL.: 943 71 10 11

ARRASATE



grupo  
amuebladora  
mondragonesa

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

ARRASATE

centro hogar MUEBLES

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 79 15 03

ARRASATE



1956-2016  
**6**  
URTE  
ESKERRIK ASKO !!